

# Amodiozko kantak

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

Herri-kanta edo abestien bilduma, Sara'ko etxe askotan gorde ohi zutena, 1940-1953ko garaian beintzat. Nik bir-idatzi nuana eta hemen argitarazten dedana **Gaztainalde** baserrikoa zan.

## Barandiaran'go Joxemiel

### EMPERATRIZARI

1

Ene sortzez eskualdun soldatu chortetik,  
Gerlarat juan nintzen aita-amen aldetik,  
Nigarrez maiteno bat herrian utzirik.  
Etzuten uste ikhus ni berriz bizirik,  
Soldadu on izan naiz, ez dut urrikirik.

2

Lehenbiziko sua hanchet Italian  
Frogatu izan nuen Magenta zubian.  
Lerro osuak zohazen lurrerat aldian,  
Emperadorea zen han gure erdian,  
Harentzat hilen ginen guziak lorian.

3

Magentaren ondotik gero Solferino,  
Hain su bizirik ez da izan egundaino,  
Gure emperadorea, biba zu oraino  
Han ere suharrago baitzinen gu baino  
Etsaiak arraz amor eman arteraino.

4

Bolboraren lanhoa altxatu zenean,  
Napoleon galopan espata eskuan,  
Begia erabiliz bere inguruan,  
«Non da etsaia, dio, juan deya airean»,  
Horra non den ihaurri etzana lurrean.

5

Erromatik entzun da oihu bat Frantzian,  
Manduler batzu dire han hasi errabian.  
Gure aita saindua bortchatu nahian;  
Bainan indarrak urthu laster biotzian  
Frantziako bandera agertu denian.

6

Erromatik Frantzian berriz sarthurikan,  
Amientzen nindagon izurrite hartan.  
Herioaren esteyak jastatu ditut han  
Harekin hari ginen guziak borrokan,  
Batzu hiltzireneko bertzeak korrokan.

7

Bere palaziotik entzunik berria,  
Huna emperatriza zalhu ethorria,  
Eriz eri dabila zer ikusgarria,  
Iduri aingeru bat Jaunak egorria,  
Zuregatik zombatek ez dugu bizia.

8

Sei urtheren buruyan jin zautan orena,  
Aspaldian Jaunari galdatzen nuena,  
Ene herri maitea naiz alde bat jina,  
Usa begi urdina, hain fidel egona  
Orai aldean zaitut espos haibat ona.

9

Haurretik maithaturik Jaunaren legia,  
Bethi baliatu zait prestu izatea.  
Ongi zerbitzaturik emperadorea,  
Badut ohore frango, badut kurutzea,  
Bide berretik habil hi ere gaztia.

### GIZONAREN AKABANTZA

1

Nahi balin bagira hil eta salbatu,  
Arte huntan bahar gira kombertitu,  
Bekhatu egiteko kostuma kitatu,  
Lehen eginez ere urrikitan sarthu;  
Ez berriz lerratu, ahalaz beiratu,  
Ongi kofesatu, hiltzeaz orhoitu,  
Denbora yuan eta ez baita probetchu.

2

Sorthuz geroz guziek zor dugu hiltzia,  
Deusik ez da gure munduko bizia,  
Kita dezagun kita hemengo hauzia;  
Garbiki etsamina kontzientzia  
Berize munduan da gure justizia,  
Azken sententzia, zer oren tristia,  
Eternitateko penaren luzia.

3

Pena hetaraz geroz ez da libratzerik,  
Eternitateak ez du finitzerik;  
Zenbat arima ez da han kondenaturik  
Sekulan libratzeko ez esperantzarik.  
Hetaz ohoiturik, esemplu harturik,  
Gauden lotsaturik, humiliaturik,  
Nois nahi partitzeko mundu huntarik.

4

Mundu huntako penak deusik ez dirade  
Bertzekoaren aldian itzalaren pare;  
Urteak miliunka pasaturik ere,  
Meserikordiarik han ez da batere.  
Zeruko errege, oro zuri gaude,  
Iguzu fagore, horttik altcha zaita,  
Gure arima doloratuen jabe.

5

Jaunak egorri du zerutik galdea,  
Herioa du bere mandalaria.  
Hura jinez gerostik jua beharko gira  
Ofentzatu baitugu gure gidaria  
Zure seme dibino eta jaun haundia  
Gaiten humilia demboraz balia  
Eternitateaz orhoitzen baguira  
Zeruko atheak idekiko dira.

6

Andre dena Maria birjina garbia,  
Zure laguntzaren beharretan gia  
Hura jinez gerostik jua beharko gira  
Gure juijatzailiak prest izanen dira  
Guk egin gaskia bai eta ongia  
heien arabera pagaturen dira,  
Memento lazgarriak izanen dira.

7

Jaunak zure graziak izain dira haundiak  
Ez ditazke erran hekien nombriak,  
zeruko iduzkia eta ilhargia  
Jauna gidatzen ditu zure poteriak  
Errebelatuak gu zure ardiak  
Senda tzatzu gure arima eriak.  
Othoi ez abandona zure umiak.

## LEHEN ETA ORAI

1

Izan nauk ipharrera hego aldetik  
Iguzkiko aldera mendebaletik,  
Eta diat ikhusi guzien gainetik  
Inoxentzia hainitz gizonen aldetik.  
Abila hargatik  
Duk egundainotik  
Egin gabe deusik  
Ederkiena bizi bertzen lanetik.

2

Munduan jarri zuan injustizia  
Nagusitu zelakotz alferkeria  
Zombait abilek ez dik dembora handia  
Beretua zutela mundu hau guzia.  
Hik laboraria  
Eragin hazia  
Eta bil bihia,  
Abilentza zuan ogi churia.

3

Aditu diat ere baska onenak  
Ez zituela zaldi nekhatzen zenak  
Oilo oilasko eta oilanda gizenak  
Yaten etzituela hasten zituenak.  
Yanari onenak  
Arno gozoenak  
Gauza hoberenak  
Abilek zitustela iresten denak.

4

Sortzetik hiltzeraino laboraria  
Ustarripean zuan hire tokia  
Eta bethi lanean higatuz bizia  
Hirerik ertzukeian non pausa erhia,  
Bertzena guzia  
Zer injustizia  
Ikaragarria,  
Azinden herrunkan hintzen jarria.

5

Hogoi mende bederen hola munduan  
Gizona gizonaren esklabo zuan  
Abila ezarria urhesko trunuan  
Bazuan bat errege guzien buruan,  
Haren aginduan  
Alferrak zituan  
Bethi deskantzuan  
Eta gu lanarekin bethi gudian.

6

Lagunak ez du errech orai sinhesten  
Yenden inozentzia nolakoa zen.  
Erregeren nahia bardin hala bazen  
Miliunka zitian gizonak altchatzen  
Harmak harrerazten  
Lerroan ezartzen  
Gerlarat igortzen  
Eta han inozentek elgar chahutzen.

7

Zinez zorigaitzeko dembora hetan  
Holako miseria zen basterretan,  
Pobreak biluziak non nahi bidetan  
Hotzak eta goseak hilak erdietan,  
Zembat ama hetan  
Haurrak besoetan  
Gaichuak herrestan  
Alferrak libertitzen jauregietan.

8

Ethorri zuan bada noizbeit orena  
Gizona herrestatik altchatu zena  
Eta porroskatik gabe zakharkena  
Bere gizon dretchoak hartu zituena  
Hauk gure aitena  
Duk obra lehena  
Eta ederrena  
Gizona esklabotik egin zutena.

9

Choil ez dik ehun urthe lagun maiteak  
 Gizonaren herrunkan gure jartzeak  
 Lehen batzu nagusi esklabo bertzeak  
 Iduri aita baten etziren umeak;  
     Gerostik yendeak  
     Handiak, pobreak  
     Aberatz chumeak  
 Lerro berean gaitik jarri legeak.

10

Ala dadin aberatz ala pobrea  
 Gizona gizonaren duk haurridea  
 Eta gu goratzeko bertzen aphaltzea  
 Gure anaiari duk laido egitea.  
     Elgar aditzea,  
     Elgar maithatzea  
     Eta laguntzea  
 Hori duk egiasko Jainko-legea.

### BISITAZ ETHORRI DA

1

Bisitaz ethorri da Parisdik barbera  
 Nundik sofritzen duen mintza dadiela.  
 Bere alabaren partez ama zen mintzatu  
 Sabela diola zerbaitek trabatu.  
 Zure alabaren gaitza senda dezakenik  
 Nere botikan ez da erremediorik;  
 Bederatzi ilabethe da gaitz horren adina,  
 Orduan juanen zaio sabeleko mina.

### KANTA BERRI BATZUEK

1

Kanta berri batzuek noha kantatzera  
 Disimularik gabe garbi mintzatzera  
 Suyetak ez du nahi utzi pasatzera  
 Denek jakin dezaten noha kantatzera.

2

Mila zortzi ehun eta berrogoi ta hamarraz  
 Orhoitzeko dembor izanen dut arraz  
 Lorik ere ezi egin erdietan gabaz  
 Bethi pentzamenduan hasi nuen lanaz.

3

Amodiotan nintzen presuna batekin  
 Hitzemanak ere bai biok elgarrekin  
 Zoazte fidatzera oraiko gaitiekin,  
 Eza deklaratu daut mila eskusekin.

4

Adichkide batzuek ez nituen alde  
 Bego afera hortan nor diren ez galde.

5

Nere kontrarioak badakit nor diren  
 Gauzaren gibelatzen gogotik hai ziren  
 Orai ez dire gaiski lehen ongui baziren  
 Neska urrikitia ikhusi nahiak ziren.

6

Nechkatcha gaste harek in du etsamina  
 Disimulatu nahiz bere hutz egina  
 Soberatche zaiola nik dudan adina  
 Zertaki hitz eman du enochent arina.

7

Lehen ere bazakien adinaren berri  
 Zeren deklaratuak baikien elgarri.  
 Bi mila otchin dote behar zela ekharri  
 Guzietan konforme ongui ginen jarri.

8

Hogoita hamabi urthe aurthen tut bethiak  
 Sahartuz hiltzekotan orainik guztiak  
 Arimak yuaiten dire higual gaztiak  
 Lurrez ere estaltzen ez hala ustiak.

### KANTAK HARTZERA NOHA

1

Kantak hartzera noha neure buruari  
 Delitu eta kausa badaukat ugari  
 Bizitze penasoa gerthatu zait neri  
 Probatutzen duenak eskarmenta bedi.

2

Eskondu gabetarik nintzen muthil zartu  
 Gero soldatu nintzen karlistetan sarthu  
 Gerostikan ez gera bizi edertu  
 Gito bat bederen hobeko det hartu.

3

Neska tzar bat tentatzen lenguan nai hazi  
 Aipamena egin diot berari lembizi  
 Hauk muthil zar zikina ezan ta igesi  
 Estimazio tcharra ez dugu ikhusi.

4

Gauza eskusatua zen ichilik uztia  
 Bata bezalakoa ginaden bertzia  
 Ezan nion zu ere etzaude gaztia  
 Errietan asi zait neska tzar tristia.

5

Beste bat tokatu zait isketako eran  
 Ari're esan diot eskonduko geran  
 Haur gazte floreakia badaukala aukeran  
 Azkenian ezan dit diru asko dedan.

6

Bi auntz eta asto bat badauzkat erdira  
 Zaspi ardi zar ere mendian hor dira.  
 Neska tzar debruak; horiek zer dira?  
 Konformatu ez da ta enetzat perdita.

7

Alhardun urdindu bat badaukat ausuan  
 Arire aipatu diot libre den kasuan.  
 Lembizitik asi zait izketa gozuan  
 Bai eta're agindu borondate osuan.

8

Gau batez jua nitzaiion alhargu zarrari,  
 Odola berotuta egin diot irri  
 Ostikos jo nau eta burla egin eta kurri,  
 Ezan dit: ez geiago ni ganat ethorri.

9

Athiaren zulotik neguan begira  
 Derrepente eman dit bertan despegida  
 Hori bezen usuak guziak balira  
 Gero muthil zaharrak azalduko dira.

10

Izena Kasinto dut, apalidua Durruti  
Eskondu nahi nuke ta nobiua urruti  
Ni artuko nauenik ez dut iñon senti  
Onez geroz horrela hobeko bet bizi.

### SARATARRAK SUYET EDER BAT

#### Suyet eder bat deklaraten dut gastiek exemplu hartzeko

1

Amodioa zein den langoz gasterik hari lotzeko.  
Izar eder bat hautatu nuen arteko  
Behin bihotzian sarthu zait eta ez baitzait atheratuko.

2

Amodio berria gaztien choragarria  
Hamar urthe komplitu gabe emana nuen fedia  
Gerostik bethi gomendatzen dut zeruko Jaingo handia,  
Haren baitan emana nuyen konfidantzia guzia.

3

Amodiorik ez dutenak penak zer diren ez daki  
Ni gaichoa aspaldian atakutzen nau borthizki  
Ene maitia konsolatzeko ardura nahi ikussi  
Zu biztan gabe mundu huntan ni ez naiteke luze bizi.

4

Ene maitia arazoin duzu ez gira luzez biziko  
Behar baino zazpi urthe lehen gira tomban sarthuko.  
Emeki emeki ez othe dugu lan hori autenituko  
Menturaz oraino zure aita gutaz da urrikalduko.

5

Zazpi urthe pasatu ditugu bio elgarren agradoz  
Gero laster tristati ginen ait-amak yakinez gero.  
Amodioa gauza handia, diruz ez daiteke eros  
Hori dela medio gira biak betikotz maluruz.

6

Zure aitaganik aparentziaz nik hori nuen merezi  
Zeren zaitudan auzietarik espos laguntzat berechi.  
Desterraturik igortzen naute zure menetik ihesi  
Zureganako amodioa nahiz arraz utzarazi.

7

Despegiedarik ez dirot eman maitia zure ahalkez  
Maite nauzula ez dut dudarik zure aita-amen partez.  
Dudarik gabe etziren kontent gure arteko manerez  
Changrin handietan bizitzeko sorthuak gira araez.

8

Ez ahak zuazi nere ustera zaspi urtheren buruan  
Gure manerak biek elgarri deklaratu tugunian  
Yakin zazu ez dela sartzen fedee ukhaturik zeruan.  
Zutaz bertze espos-lagunik ez dut harturen munduan.

10

Fidelitate handian, Birjinitate garbian  
Berthute hori beiratu dugu gure dembora guzian  
Okasionetik ihes eginez ahal bezembat munduan  
Eternitatean lorios, nahiz hil eta, parabisuan.

### GALERETAN

1

Aspaldion hemen naiz salbaien artean  
Goizetik arratzera hari naiz lanean  
Haurkheri bat egin dut gaste nintzenean  
Urrikoa hemen dut orai bihotzian.

2

Aita nuen gizon bat errespetatua  
Herriko gradoetan aspaldi sarthua.  
Ama gaichoa ere denek maithatua  
Nahi nuke oraitche bietaz barkatua.

3

Nere lau haurrideak ez dituk aiphatzen  
Ez ditut ez gaichoak segurki ahanstetik.  
Oí nahi nuke nitaz balire orhoitzen  
Bainan segur naiz hoiek naute arbuatzen.

4

Egun batez gan nintzen Sarako bestara,  
Egun hartarik ez naiz agertu etchera.  
Oraino heldu zaizkit nigarrak begira,  
Altchatua ninduten yada kartzelara.

5

Lagunekin sobrachko edan ta goizetetik  
Sentimendua gan zen nere bihotzetik.  
Han hil nuen gizon bat ez deuzen gainetik  
Ez dakit zer pasatu zitzaudan burutik.

6

Mundu huntan badire on tzar denetarik,  
Ez naiz ustez segurik hoberenetarik  
Zer litake munduan ez balitz hoberik  
Bainan ez othe dut nik tzarrez tzar parerik.

7

Barkamendu deneri dautzuet galdetzen  
Ene hutza neheri ez dut nik gordetzen,  
Hura da barkhatua nork beitu aithortzen  
Ene hutzaian zorra hemen dut pagatzen.

8

Finitu aintzinean hiru hitz deneri  
Konseilu on bat ere gaste direneri  
Beira bethi hurbildik zuen laguneri  
Bereziki zuekin trebe direneri.

9

Libro usten banaute sekulan hemendik  
Berriz ez naiz iganen Askaingo herritik  
Arnoik ez da jautziko nere zintzurretik  
Edanen du basoka Larrungo uretik.

10

Toki onak badire baster guzietan  
Bainan hoiek ez bilha salbaien artetan  
Egon guziak libro eskualdun herritan  
Oí ez nukela hil nahi hemen galeretan.

### KRICHTAU BEKHATOREA

1

Krichtau bekhatorea asken orenean  
Changrinen bestitua dago bere ohean.  
Orai sarthu behar zia zeruko lorian  
Haren begira daude infernu gorian.

2

Gambara bthea du adichkidetarik  
bainan harentzat ez da hetan fagorerik.  
Herioa du partida Jaunak igorririk,  
Haren gibelatzeko ez da podererik.

3

Negarretan yarriak han diren yendiak  
Haritzen dituela bekhatoroz eriak  
Hortz karrasketan dago zabalduz begiak  
Ostikatu dituela ministroen egiak.

4

Dembora balimbanu konfesa nidaite  
Ministro baten bila yuan zintezkete  
Eta nitan etsemplu ikhus zuek ere  
Bekhatuan bizitzia zer duan ondore.

5

Ene dohakhabia hauche da malhura  
Adinik hoberenian yuaitia infernura.  
Jainkoak salbatzeko emana mundura  
Adios zeru lurak, banoa sutara.

6

Gero gombertitzeko egoiten bagira  
Azken estremitateko hitzaren begira  
Eskritura sailduko solas batzu dira  
Ez direla segurutzen miletarik bia.

7

Azken estremitatian ez da bertze obrarik  
Kontrizione perfeta ahala delarik.  
Ahalak juanez geroz ez da probetchurik,  
Jainkoak ez du zeruan eri ospitalerik.

### LAU URTHEKO HAUR BATEN HILTZIA (Prodiguaren kantuen airea)

1

Sujet eder bat deklaritzen dut gure artian gerta dena,  
Aditziak berak emaiten daut bihotzian pena  
Gauz hek kompreni dezaten: lau urtheko haur batena  
Giza hortan martyr hiltzeko non zuen hogena.

2

Haur haren aita izan da gaitz batez atakatua,  
Konsurtatu ere izan du bere doktor mirikuia,  
Yende urinez fretatzeko eman dako koseiluia,  
Bertzela ez dela izanen gaitz hortarik sendatuia.

3

Bere gaitz hartarik nahiz sendatu pentzaketa da paratu  
Gisa hortako erremedioa non behar duten bilhatu.  
Etchera denian andriari laster dio preposatu,  
Haurraren hiltzia nahi duenez harekin deliberatu.

4

Adi zazue orai guziek andriaren arrapostua;  
Bere jaunaren galdegintzaz nola zen afruntua:  
Yende urinez fretatzeko eman badauk konseiluia,  
Haurra hilik ere nahi diat izan hadin sendatuia.

5

Nahiz adinez gazte zen haurra, kompreniturik afera  
Presatuki laster egin du aitautchiren etchera  
Etchian zer aditu duen yaun hari dklaratzera  
Aita-amak ekharriak zirela gau harta haren hiltzera.

6

Aitautchik ez du sinhetzi bere fede fermuan  
Krima hori einen duenik ez ahal duk munduan  
Yan eta edan zak haurra, othoi, habil deskantzuan,  
Gisa hortako pentzamendurik harture gabe buruan.

7

Haur gaichuak malura izan du etchian arribatzeko:  
Andriak senharra manatzen du lephotik ithotzeko.  
Kurairik aski etzuen biktima hari lotzeko;  
Ama burregoa aski izan da bera lanaren egiteko.

8

Haur gaichoa hil zutenian gerrenian ezarri  
Ama zu egiten hari zen eta aita itzultzen jarri  
Mundu guziak ikhus dezan ez deia pena egingarri  
Zombat sofriarazi dioten aingeru gaicho hari.

9

Haur gaichoa han hari zuten gerrenian erretzen  
Nehork ikhuste zituztela ez batzekien pentzaten;  
Aingeruek abertiturik aitautchi arribatu zen,  
Sarthu orduko abiatu haurra non zuten galdetzen.

10

Aita tristerik zagon bainan ama kuraie handian  
Errepostua emaiten dio lo zagola ohean.  
Zerbeit iduriturik bilha abiatu zen orduan  
Haurraerrerik kausitu zuen gerrenian ohe aspian.

11

Burhaso krudel batzueendako hira zuten flakezia  
Aithortzera obligatuak beren krima handia.  
Behar bezala abisatu zen herriko justizia,  
Lephoak mosteko izan dute azkeneko sententzia.

12

Yende onak emazue phondu huni guardia  
Zeren eta gerthatzen baita biotz erdiragarria.  
Nork behar du hola tratatu bakhotchak ber umia,  
Haur bakharra izan eta hura gerrenian erria.

13

Nongo burhasoak behar du izan hura zen bezain traidore  
Edo bertzela bihotzian ez du Jainko beldurrik batere,  
Haur hiltzen hari direnak burregoak deitzen dirade,  
Nork, beria esik, nork nahi luke ikhusi bertzena ere.

14

Adamen seme-alabak gira mundu huntako guziak  
Amodio perfet batez elkharri barkha gaizkiak.  
Hori bera manatzen du Jainkoaren justiziak  
Egundaino gauza onikan ez du egin maleziak.

15

Etsaiak indar emaiten du gaizkiaren egiteko  
Baina bothererik ez du haren erreparatzeko.  
Jaunak permetitu hori guri etsemplu emaiteko  
Makhur gabiltzan guziok gure baithan sartzeko.

16

Hamaseigarren pertzu huntan guzieren despegida  
Amisgunde hobiagorik ez daiteke desira  
Paper horiek galdu gabe ongi altchatzen badira  
Gure mendeko etsempluztat berak askiko dira.

### MOBIL DESERTURRAK

- 1  
Espainiatik Frantziarat letraz milaka goraintzi  
Horko adichkide zaharrak etzaizkit orainon ahantzi,  
Michel Renauk partikularki ohore hau dau merechi  
Eskualdunen aitatako behar dugu berechi.
- 2  
Amodio handia duzu eskualdu muthil gaztentzat  
Guk ere beraz hala dugu, aita maitia, zuretzat.  
Besta bat in behar omen duzue mobileko lagunentzat  
Hezur guziak igorkitzue desertur putrunentzat.
- 3  
Zure ezagutza izan du Michel gaztelu berrian  
Chimpletasunik handienian han zinen gure erdian,  
Gizon humilak maitatzen dire mundu huntan berian,  
Ez dut dudarik saristatua izanen zira bertzian.
- 4  
Zu bezalako gizon finak izan balira Frantzian  
Bitoria irabazirik ginauzkaian alegrantzian.  
Bainan nor fida zaiteken faltzo batzuen artean,  
Guzian saldu zaituzte diru puchka batian.
- 5  
Gizon izpiritu handia dena kuraiez bethia  
Zure aintzinian kanta nitzakke banu libertatia.  
Krima handirik egi gabe kitatu dut Frantzia  
Nombeit gauza gaichtoa behar da desobedientzia.
- 6  
Orai duela bi urthe Baionan nintzen soldadu,  
Eskolaren arabera banuen frango gradu.  
Egin dudan hutz handian urrikitan bainago  
Zuen bestaren berri aditziak zartzen zait barnago.
- 7  
Kargu handia izan nuen Mobiletako kaporal  
Emendatzeko esperantzaz belduz ez banintz kaskoa gal.  
Ni aita-amen seme bakharra bertzerik ez iten ahal,  
Hori da ene kasua eta ez naiteke eskusa ahal.

### URTHUBIAKO ALABA

- 1  
Dama gazte charmant bat heldu zait bichtara  
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra.  
Ama batek hazteko hori zerbait bada  
Gure salbaitzaileak kontserba dezala **(bis)**.
- 2  
Gau on gizon gastia kompaniarekin  
Gostu duzuna egoitia memen bat gurekin,  
Badakizu mintzatzen errespeturekin  
Jainkoak har zaitzala hil ondoan berekin.
- 3  
Ene maite pollita nun othe den bizi  
Zuk bazinakikeia haren zerbeit berri  
Aspaldi ikhustera juan beharra bethi,  
Errozu ene partez milaka goraintzi.
- 4  
Etzinukeia hobe zuhaurrek yuaitia  
Hola igorri gabe komissionia.  
Samurturen othe den etzaitela fida  
Zato enekin eta biak yuanen gira.

- 5  
Jin ere banindaite zurekin gogotik  
Ez banu bihotzian deus errangurarik  
Gambiatuia dela norbeitek erranik  
Hortakoz ez naiz juaiten deus ez dut bertzerik.
- 6  
Zato enekin eta errozu berari  
Leheneko hitzetan dagoenetz bethi,  
Disimulatzen badu utzazu labuzki,  
Ni hemen izanen naiz zure serbitzari.
- 7  
Ene maite pollita nolache zirare,  
Askenian ikhustera jiten naiz ni ere;  
Ni pobria naizela mintzatu zirade,  
Gure alegrantziak bethikotz yuan dire.
- 8  
Etzireia orhoitzen oi gizon gaztia  
Duela zaspi urthe ez dut ahantzia  
Etzinuela aski goguan izaitia  
Ez baitzinuen ekhartzen hitzeman dothia.
- 9  
Duela zaspi urthe etche huntan behin  
Etzireia orhoitzen zer ginuen egin  
Ezkonduko zinela segurki enekin,  
Hitz eman zinerautan juramentuarekin.
- 10  
Ene hitz emaitiak etzuen balio:  
Gogoetak egin ditut ait-amekin geio,  
Dotherik ez duzula baitiote orok  
Hortako ez dut gogua lehen bezain bero.
- 11  
Emaste-gai bat badut egina berria  
Hogoi mila pistola beretzat dothia;  
Bertze bat atchemazu ni baino hobia,  
Ni nereaz kontent naiz adios maitia.
- 12  
Zaspi urtheren buruan despegida hori  
Aise egiten duzu orain nitaz irri;  
Arrallerian zerbait nik errana gatik  
Ez nautzun galdeturen sekulan dotherik.
- 13  
Zuhurren falta dela konsidera zazu  
Aspaldian baitzira zu nitaz trufatu,  
Dolu zaitzu bainan ez duzu probetchu,  
Adios beraz maitia fortuna egizu.
- 14  
Eni emanarazi hitz eta fedia  
Hortan kolpatzen duzu Jaunaren legia  
Arrasta badugu erdiragarria  
Fede ukhatuarentzat infernu gorria.
- 15  
Beraz horra non duzun orai despediga  
Kontzienzia garbi adios maitia,  
Zurea ala enia othe den egia  
Lekuko izanen da zeruko erregia.
- 16  
Belhaunikatzen nuzu zure aintzinean  
Ene falta guziez pena bihotzian  
Ez nezazula kita orai ez bizian  
Biok biziko gira gostura munduian.

17

Chuti zaite maitea, indazut eskuia  
Bihotza erdiratzen zu hola ikhustia.  
Etzañtut kitaturen orai ez bizian  
Biok biziko gira gostura munduian.

18

Urthubiako alaba begira zaudena,  
Zuk emaiten dautazu bihotzian pena:  
Zu zaitut bigarrena hau nuen lehena  
Hau hiltzen zaitanian jinen naiz zugana.

19

Ez othe naiz bada ni hura bainon hobe  
Nahiz gorphutzez eta ontasunez ere,  
Nik baditut neriak sei mila untz urhe,  
Hoi en erdiak zure serbitzuko dire.

20

Zuk sei mila untz urhe nik bertze hainbertze,  
Gu biak elgarrekin ongi jin gintazke;  
Bainan fedia diruz ezin eros daite,  
Hura huni eman nuen orai zazpi urthe.

21

Ene maitearekin gostura naiz hemen  
Othoitz egin dezagun orok salba giten,  
Hil eta zeruetan sar gaitezen chuchen  
Ene esposarekin sekulakotz AMEN.

### KANTAZERA NIHUAZU

1

Kantazera nihuazu alegera gabe  
Berain probetchurik ez tristaturikan ere,  
Nehondik deus ebazti gizonik hil gabe  
Sekulako galerak enetako dire.

2

Mila zortzi ehun eta ogoita bigarrena  
Ni Hazparrenen preso hartu nindutena,  
Lumaieneko premu orok dakitena  
Galeretan higatu beharko naizena.

3

Kantu hauk eman ditut Paueko hirian  
Burdinaz kargaturik oi presondegian  
Bai eta kopiatu dembora berian  
Orok kanta ditzaten oi gure herrian.

4

Kantu hauk eman ditut ez changrinatzeko  
Ene ahide adichkidien kuraieztatzeko  
Eta partikulazki, aita, zuretako  
Kantu hauk aditzian nitaz orhoitzeko.

5

Aita aintzinian eta alaba ondoko  
Osaba buyes hori diru hornitzeko  
Ez ordian enetako bi sei liberako  
Galeretan bederen leher egiteko.

6

Obligazione diotet aitari eta arreberi  
Eta giza beria osaba jaunari.  
Hek adrezatu dira herriko merari  
Bai eta eginarazi dirutan zer nahi.

7

Ene husia propi kadet borda churi  
Hobe nitek behatu izan banu hiri  
Hargatik badiagu osaba propirik  
Ez baititek egiten ohoriaz kasurik.

8

Elizan sartzen dire modestiarekin  
Iduri han tuztela sainduak berekin  
Denak liburu eta denak sino mino  
Debruak present onik behar dik oraino.

### EZ DA ARROPATIK AGERI GIZONA

1

Charmegarria zira eder eta fresko  
Zurekin ametsetan egona naiz atzo  
Orduko atsegina senditurik gocho  
Irtazarita egin dut pentzaketa asko.

2

Jauna, zer mintzo zira giza hortan niri.  
Holakorik ez erran hau ignoranteri  
Enekin egoitia etzaitzu komeni  
Behatzen badiozu zure arropari.

3

Ez da arropatikan ageri gizona  
Bihotzian behar du borondate ona,  
Zurekin bizitzeko nik banu fortuna,  
Deskantzu pasa niro gau eta eguna.

4

Plazer eginen duzu ichiltzen bazira  
Haur ignorantak hola trompatzen baitira  
Ez da enetzat ona holako segida  
Bertzalde zure baithan ez naiteke fida.

5

Fidatzen ahal zira ene erranetan  
Tromperiarik ez da yende galantetan,  
Deusik gerhatzen balitz sekulan zu baithan  
Biak bizi gintazke lur arrotz batetan.

6

Ongi hartzen dut hori zureganik, jauna,  
Bihotz tendre batekin heldu naiz zugana,  
Baldin gerhatzen bazait neri zerbait pena  
Nitaz eginen duzu bethi zuzen dena.

7

Hortakoz bizi zaite deskantzuarekin  
Ongi izanen zira bethikoz enekin,  
Zure aferak egin sekeretuarekin  
Gure berririk ez du nehork behar yakin.

8

Amak erran daut zerbeit nombeitik yakinik  
Esperantzian naizela, jauna, zuregandik,  
Gerostik hemen nago begiak ilhunik  
Sabelaren barnean echurrak eginik.

9

Adios beraz orai ene arrarao  
Hori dela medio herritik banoa  
Pihotza triste eta trakazan gogua  
Bethi yarraikitzen zat zure amodioa.

10

Etzaitela herritik nigabe abia  
Segituko naizela izan zaite fida  
Aintzinetik har azu juaiteko segida  
Zuk nahi duzunean partituko gira.

11

Huntan kitatzen zaitut maitia bethiko  
Sekulan ez baitzaitut berritz ikhusiko  
Ehortzen den fruitua dautazu hasiko  
Egun batez bainaiz hortaz orhoituko.

12

Aditu nuenian despegida hori  
Flakeziak harturik ninduzun erori  
Orduan eman nion aithorra amari  
Labuzki bainan harek etchetik egorri.

### ITSUA ETA SASTREA

1

Eskualdun bat zen itsu eta bertzulari  
Athez athe zabilan ilhobagidari  
Soineko eta diru yanhari edari  
Nazaiki biltzen zuten bertzu eman sari.

2

Zuhur giza baitzuten sos guti chautzen  
Piko baten azpian eltzea zeukaten  
Hiru ehun libera harat bildu zuten  
Bainan gaichtagin baten ebatzi zioten.

3

Bere gorde-lekutik galdurik eltzea  
Bat zagon hatzberenka nigarrez bertzea.  
Ilhobak erran zion: osaba maitea,  
Horra zer den kampoan gauzen gordetzea.

4

Azkeno aldian hemen ginelarik  
Ikhusi gaituztela ez diat dudarik.  
Bai, sastre heldu pegarra betherik  
Behatu zuen guri, bainan urrundik.

5

Ilhoba, gida nezak sastrearengana  
Adi dezan bertzu bat itsuak emana  
Gure eltzea badu harek erremana  
Bazakiat nik hura zer gizaz engana.

6

Ilhobak ezan zion aþhal beharrira  
Sastrearen etchera orai heltzen gira  
Irri paltzuan dago laihotik begira  
Ez erran hitz gaichtorik zuhurra bazira.

7

Ilhoba gida nezak arthoski bidean  
Zerbeit daiat utziko azken egunean.  
Ehun louis baitiat piko baten pean  
Bertze ehun emanen egun han berean.

8

Sastreak bere baithan: itzuak etzakik  
Hartuak ditudala horren sosak handik  
Eitze hau diruekin berri han emanik  
Bertze hiru ehunak bilduko tiat nik.

9

Sastrearen agintza balios izan zen  
Biharamun goizeko eltzea han zuten  
Ilhobak erran zion hemen dugu hemen  
Oi zein ongi sastrea enganatua den

10

Ene moltzan behar dut dirua ezarri  
Lurpean hola hola utzak eltze hori  
Eta emok barnean bortz edo sei harri  
Sastreak aski pisu altcha dezan sarri.

11

Itzuak sastreari errak to egia  
Atzo bezala dukan orrai arpegia  
Ala tristerik dagon doluan jarria  
Dirua erain eta bildurik harria.

12

Itzu harpagon sikitz laido emalea  
Habil eta ez kolpa ene ohorea  
Dirudun bahaitz ere eta ni gabea  
Baduk aski zorigaitz hire ilhunbea.

13

Ni itzu ilhunbean hi sastre erromes  
Dezagun lagun elgar biek ditugunez  
Nik egiten haut yabe ene ontazunez  
Okhertu nahi banauk hire begi batez.

### GUARDEN BIZIA

1

*Mes chers amis commençons* bertzuen kantatzen  
*Nous sommes bien ici* orai alegeratzen  
*D'etres toujours ainsi* nuke desiratzen  
*Le bon vin toutes nos peines* tu ahantzarasten

2

*Je dois vous annoncer* a ene lagunak  
*O'entierement sont passés* guarden egun onak  
*Nous devons passer sur pied* gaua eta egunak  
*Ah! nous pouvons bien vendre* ohe ditugunak.

3

*Le service des gardes* arraz da borthiztu  
*A tous pas presque nos chefs* ondolik ditugu  
*Quelque temps qu'il fasse dehors* egon behar dugu  
*Trois fautes pour nous casser* aski baititugu.

4

*Mes camarades encore* guardia egizu  
*De frequenter l'auberge* dute debekhatu  
*Comment sans boire du vin* egon behar dugu  
*Nos malheureuses gorges* behar dute idortu.

5

*Ces messieurs croient sans doute* bethi han gaudela  
*Pour y rester longtemps* diru badugula  
*Si l'on croit nos ressources* hadiak direla  
*Eh! bien n'en doutons plus* trompatu direla.

6

*Il en est parmi nous pourtant* zombeit ongi denik  
*Quelque bons verres de vins* edaten dutenik  
*Ils ont cet avantage* Jainkoak emanik  
*Quant autres nous restons* zintzurra idorrik.



7

*Il est donc inutile guri erraitia  
Dans la maison de Bauchut sekulan ez sartzia  
Nous avons trop de peine ezin bizitzia  
Plutot que d'être ainsi hobe da hiltzia.*

8

*La divine providence nahi du araberez  
Que le douanier soit kargaturik haurrez  
Bientot il nous faudra aller Algerira auzez  
Pour voir dans ce pays là deus ahal dugunez.*

9

*Pour rester jour et nuit oi manera huntan  
Pendant vingt cinq ans oraiko mendetan  
Il faut ce temps pour être admis erretretan  
A qui pourra y parvenir oraiko guardetan.*

### BI DAMA GAZTE

1

Mila zortzitan hiru hogoit hamabigarren urthian  
Libertzio bat para behar det gazte guzien artian,  
Dantzan dabilta erromerian ermita chiki batian  
Dama gazte bi ikhusi ditut ezin pasarik athian.

2

Elizan sarthu ziradenian parras nindagon atzetik  
Makho on bana eska zioten lendabiziko hitzatic,  
Salbadoreak beira gaitzala neska hoién gaitzetik.

3

Salbadoriak bizitatuta eska zioten chorua  
Beren buruak errespetatuz haudi- maundien moduan  
Heyan ikhusi zuten edo ez orai ez daukat goguan  
Zikhin mantcharik etzen aurkhitzen heyen beharri ondonan.

4

Bidian egin nituen topo ezan niten adio  
Hitzikan erresponditi e gabe juañ zaikit cherio.  
Batibeinik-bein sedazko zinta nondiknai badario  
Arropa horiez khenduez geroz ez kuarto bat balio.

5

Zapatatchuak charrolaztuak sedazko soinak gorriak  
Asaitasunak galdu ez detzan kortzeatuak gerriak  
Ez naiz gezurrak esaiten hari alberian pasia  
Dama horrien maneradiék zozotzeraino hasia.

6

Dimantazko beharrikuak begian aiñ kharriak  
Buruan berritz pañuelitak frantzes moduan kharriak  
Neretateko ezango dute pikaro begi-luzia  
Pobrearentzat ez da komeni aberatzen klasia.

### ENE MAITE POLLITA

1

Ene maite polita ez nauzu maithatzen  
Bihotz erdiragarri zer duzu pentzatzén  
Hambat dembora huntan nauzu abutzatzén  
Zertak o hari zare ni hola flatatzén .

2

Primaderaren koro oi liliz eguna  
Goizeko choriaren oi kantu arina  
Ez duzu estitzen ene biholtz-mina  
Zeren baitut sobera amodio fina.

3

Maiz erraten dautazu zuk maite nauzula  
Eta jendek erasten bertzerikan dela  
Muthil gazte propitan mudakor zarela  
Gizonen abusatzen zuk laket duzula.

4

Sihesten badituzu jendien erranak  
Eta guti pretzatzén nere solas onak  
Deus ez dira izanen zure ontasunak  
Segur sinetziren nau ni maite nauenak.

5

Lilitan pollitena alhorri churia  
Lilla goan ondoan zoin behi gorria  
Bihi barnean dauka oi hezur gogorra  
Barnez gor kampoñ eder da bihotz elkorra.

6

Zelhaiak biluz triste dirade neguan  
Hegastinek ez dute kantatzen orduan  
Ez da amodiorik zure bihotzean  
Kita nezezu beraz nahi duzunean.

7

Etzitzela urrunt hola samurturik  
Gau egunak naukazu nigarrez urturrik  
Nik ez dakit zer erran zaren maithaturik  
Ez baitezaket izan nik zutaz bertzerik.

8

Nahi eta beldur naiz, beldur eta nahi  
Gizon gaztia baita oi enganagarri  
Ez naite behin ere jar deskantsuari  
Zure beldur zu maite ni naiz urrikari.

### JUDU HERRATUARENK

1

Jesus heldu zelarik Galbariora  
Gurutzeaz bizkarra ongi kargatua  
Galdegín izan zauten humiliatua  
Eian utzi ren nuen borthan pausatua.

2

Nik izatu nuen hain bihotz krudela  
Ezetz erran bainion, ezetz berehala  
Aparta hadi hortik gaichto kriminela  
Hi baithan pausatzia afruntu dudala.

3

Ez da munduan gizonik ez alimalerik  
Judu herratua bezain malurus dagonik  
Ez nuke uste deus baden ere gai denik  
Haren sorthe tristiari kompara daitenik.

4

Pasatzen nintzelarik hiri batetarik  
Bi buyes zikaskidan jarraiki'ondotik  
Ziotela etzutela ikhusi gizonik  
Oi ni bezein luzeko bizarra duenik.

5

Sar zaite ostatura gurekin, gizona,  
Izanen duzu edatera arno gorri ona  
Zurekin pasa ginizaské gau eta eguna  
Bai eta ere kompli desira duzuna.

6

Sar ere banaiteke ostatuan zuekin  
Edan ere badezaket zuen arno onetk  
Jarriko ez naiz bainan egonen naiz chutik  
Tormentek hartzen naute oi jarriz gerostik.

7

Erranen duzu gizona kurioz girela  
Zure adinaren berri yakin nahi dugula  
Ehun urthe badituzula iduritzen zaikula  
Edo zure bizarra trompakor da bertzela.

8

Ene hezurak dire arraz gogortuak  
Eta demborak orainon ez akhabatuak  
Hemetzortzi ehun urthe baitut pasatuak  
Hortaz izan zaitezte oi seguratuak.

9

Izatu naiz herrietan bai hiri orotan  
Gertha ahal daitezken gerla guzietan  
Etsempluak aise tut hartu nik heietan  
Herioak ez duela indarrrik ni baithan.

10

Mundua pasatu dut bortzgarren aldian  
Hiltzen ere badire zoin bere aldian  
Eta ni ezin hilez ibilki munduan  
Azken jujamenduan zeruko lorian.

### SARAKO ERRIENTA

1

Monsieur Mendiburu Sarako errienta  
Montebideora doha utzirik erranta.  
Guziek maite zuten gizon delienta  
Gibelerat tournatzeko zerbeit egi eta.

2

Nik ere seme gazte bat harekin dut igortzen  
Aita-amen aldian sobratua ez baizen  
Gazterik ikhasia burhasoen laguntzen  
Oraino esperantza dut ez bada mudatzen.

3

Frantses emperadore señor Bonabarte  
Espainian zuretzat fama tcharra dute  
Ochala jua bazine hemendik aparte  
Hunat urhartz bezembat hara mila urthe.

### BETROIN ZAHARRA

1

Mila zortze ehun eta hiru hogoita bian  
Predikatzer a noha Euskal-herrian.  
Betroin bat hartu nuen Ernanin ferian  
Galantzia egingi nuela agian  
Trichtura begian bethi aulerian  
Ez bazen premian ene familian  
Chenpelarrek badaki Erreterian.

2

Ortzegun guan denian hamabortz Ernanin  
Betroinaren tratua ginuen egin  
Ignazio saltzale erostuna Fermin  
Hemeretzi eskutu ginion eragin  
Sabelean du min inork ase ezin  
Artuari musin ez du nahi zin  
Atzetik behar ditu zaspí medezin

3

Orainik gaztia da hogoita sei urthe  
Ernari omen ditu bortz ilhabethe  
Nik ez diot agertu ala ezan dute  
Gezurra balimbada enganatu naute  
Haragia aparte hezurretan dorphe  
Zainak dauska fuerte zoinak nahi du merke  
Zikiro batean truk eman nezake.

4

Informe tcharrak dira horrentzat hauzotik  
Espalda atheria urrun besotik,  
Estul eta anzia uskuilo-zulotik  
Desterraturen nuke hoi nere botutik  
Amarra lephotik grillua zephotik  
Makillaz ondolik jotzen det gogotik  
Acholarikan ez dut nik harengatik.

5

Begi bat itsua du adar biak motzak  
Krisellua iduri horren kokotzak  
Ikaratzen gaitu eztul horren bozak  
Burlaka hari zaizko elizatik hontzak  
Sano dauzka hortzak haginak zorrotzak  
Tristura bihotzak dantzan dabil hortzak  
Ez dio onik egin leku arrotzak.

6

Kara iguala dauka aurrian ta atzian  
Basurdia iduri chutik jartzian  
Konsuelo bat badet ene bihotzian  
Bizirik espakatzen bada hilbeltzian  
Hori humatzian esnia etchian  
Gasna abatxian gazura aratzian  
Belharrak gizenduko dik maiatzean.

7

Borroka hari delayk guan zaizko adarrak  
Ezin sukaturik bere indarrak  
Lurrera botatzen du uliaren kargak  
Zer talendua daukan nere betroi zarrak  
Jendiaren parrak ez dirade tcharrak  
Janari helbarrak juntura igarrak  
Burruntzia iduri haren bizkarrak.

8

Ene betroinak ez du gaurko logalia  
Egun oroz nahi ezik ogalia  
Alere ezin jazan lephoko khuallia  
Burua makhurtuta zerbaiten galdia  
Haren saldaria ez da debaldia  
Gauza onen zalia bichkotcha jalia  
Malezia asko daukan arrantzalia.

9

Burua jarri zaio lurrera begira  
Beharriak zintzili ai zer segida  
Albaintero guziak ikharatzen dira  
Zeinek sendatuko du holako eria;  
Bahatzen asi da irutarik bida  
Hau ene perdita nork nai du erdira  
Bainan ez dut eman nai Eskual-herria.

10

Urthiak galanduta haginak azaldu  
Daukanak hobe zuen hartu ez balu  
Etchetikan kampa ez dirot biraldu  
Yoka hazten naiz bainan laster urrikaldu  
Haragia galdu larrua ona du  
Hezurak horra du frantsesak nai balu  
Labain gizonetarat hobe det saldu.

11

Huna pertzu berriak Chempellarrek para  
Askok jakin dezaten nere uskara  
Ustez hala badut betroinaren kara  
Ukuiluan eztulka pasatzen du gaba  
Oi gure izarra sano du higarra  
Guziak tripara holakoa zara  
Desterratu nezazu gezurrik bada.

### GITARRA JOILEA

1

Gitarra tchartcho bat det nik nere laguna  
Horrela ibiltzen da artist eskualduna  
Egun batian pobre bestietan jauna  
Kantatzen pasatzen det nik bethi eguna.

2

Naiz dela Italia orobat Frantzia  
Bietan bilhatu det mila malezia  
Kurritzen badet ere nik mundu guzia  
Bethi maithaturen det eskualdun herria.

3

Jaunak emaiten badet neri osasuna  
Orainik izango det andragai bat ona  
Nahi badet frantsesa interesa duna  
Bainan nik naiago det hutzik eskualduna.

4

Adios Eskualherria, ez bainan bethiko  
Bortz sei urthe hunatan ez det ikhusiko  
Jaunari galdatzen diot grazia emaiteko  
Oi lur maite hunetan bizia uzteko.

### MANDOZAINA

1

Mando bat badaukat nik adinekua  
Hortzetan iduri du sei urthetakua  
Tatcha guziak ez ditu, luze du lephoa  
Biskar hezurra zorrotz damurik da flakoa.

2

Haren janharria da lastoa eta ahotza  
Idor egiten du establian korotza  
Ardura flakatzen zaio goizetan bihotza  
Ez dauka ikhusirik heldu dan maizatza.

3

Pausua labur eta krapestua luze  
Yendek opinioneak laste iten tuzte  
Pauso bat aintzin eta bertzia gibela  
Ardura herrestan du zangoetan zingila.

4

Allegatzen balimbanaiz Olaingo ferian  
Dirutza eder bat baduket handik adian  
Erostun guti baita halakuendako  
On izanen ahal dut erramunendako.

5

Hogoi eta lau urthe baitu mundu huntan  
Adinaz orhoituta ihartzen da goguetan  
Gaztu guti eiten du zangoko ferretan  
Begira jan ez dezaten zakunrrek errekan.

### MEDITATIONS D'UN PRETRE DE CIBOURE; NE A CAMUSARRAY; KOMPOSEES DANS DERNIERS PERIODES D'UNE MALADIE DE POITRINE QUI L'ENLEVA A LA FLEUR DE SON AGE

1

Menditik nola doha ura itsasora  
Hala ni baniazu lasterka thombara  
Akabo da akabo dembora enezat  
Banoa sekulakotz hilherrietara.

2

Bildotzari otsoa nola zaio lotzen  
Arranuak usoa nola baitu hartzen  
Hala nau herriok krudelki zezitzen  
Oi ene heiahora ez duk ez ukitzen.

3

Aspaldion fuinetan nakarken sarthua  
Hilherrirat neraman mim pozoatua  
Doloresko ohean orai itzatua  
Sentitzen zainetan odola hoztua.

4

Segoa nola baitu su gorriak urtzen  
Hala du ene bizia gaitzak iraungitzen  
Ez dut ez gehiago sentitzen bizirik  
Hil baino lehenago hila naiz jadanik.

5

Trunko baten pareko ohean etzana  
Ene gorphutza dago gaitzak urran jana  
Ezin ditaske mugi ene menbro hotzak  
Mihia dut lodi ta begiak zorrotzak.

6

Yadanik ezin adi mintzo zaikidanak  
Erdiak ezin ikhus nere maiterenak  
Helaz! hil aintzineko izerdi hormatuak  
Dauzkit behin bethikotz gogortu membroak.

7

Orduan aphezari oihu deadarrak  
Hiltzen naizela hari har detzan lasterrak  
Ama zaio eman nigar marraskari  
Helaz etsimenean nigarra sokhori.

8

Eriaren othaitza duela egiten  
Deraut azken laguntza aphezak emaiten  
Arima girichtino Jainkoaren haurra  
Hoa partí adi dio Abrahamen soinera.

9

Dolamenekin gero zeruko sainduak  
Neretzat bitarteko dire galdetuak  
Jendeak belhauniko nere inguruetan  
Halabiz erraiteko nere fagoretan.

10

Poltzua zait baratzen tipitzen bihotza  
Ai ezin dirot nik har ezin dirot hatza  
Har tzazu har, Jainkoa, har ene arima  
Banoa ha! banoa adio ene ama.

11

Ene arima gan da bertze mundura gan  
Dohatzua hil bada Jainkoaren bakean  
Lurrean da gelditu ene gorphutz hotza  
Haragi erdi usteldu higatu afrusa.

12

Bertzek dautek zerratzen aho gogortua  
Bertzek erhie zezten begi ubeldua  
Mihize zahar baten barnean gordea  
Naute kachan emaiten oi ene zorzea.

13

Oihu soinu ez eskilak mezutzen du jadan  
Gizon bat herioak duela ereman  
Jainko jaunak diola miseriakordia  
Diote berehala eta horra guzia.

### IDUZKIA

1

Egunaz iduzki eta gauaz argizari  
Heiek argitzen dute mundu guziari  
Gaitzikan baduzula neri etzait iduri  
Itchuran ez baituz faltarik ageri.

2

Arropak tristiak zuhaur alegera  
Niri pena emaiteko jin zira mundura  
Halere nahi zintuzket ikhusi ardura  
Izanen badut ere bethiko malura.

3

Uso herratua da bethi dolugarri  
Laguna galduz norat juan ez daki  
Ene maitia da hartara erori,  
Mundu huntan ez baitut bat kontsolagarri.

4

Zangoak banitu nik egalen pareko  
Desir dudanian zuerganat jiteko  
Kayola bat egin niro ilhutzen deneko  
Gut baizik jakin gabe biak egoiteko.

### GALERIANOAK EMANAK

1

Asko burhasori nahi dut adiarazi  
Beren umiak nola behar tuzten hazi  
Kondizione tcharrak ahalaz utzarazi  
Jainkoaren legia prunts harrarazi  
Nahi dutena egitera behin ere ez utzi.

2

Etsemplu onak eman haurrei gaztetan  
Dotrina irakhutsi goiz eta arrazetan  
Gaztigu sobra batetan behar den modutan  
Asko galtzen bai gare burhasoen faltan.

3

Ni sorthu bide nintzen segur oren haichtoan  
Ochala hil izan banitz bathaioko egunean  
Alferik gauza onik ez hain gutchi lanean  
Bethi presondeian edo gartzela barnean  
Ez dakit zer behar den nitaz azkenean.

4

Kalabozo batian pertzu haukien emaiten  
Goseak hil urrana hotzak akhabatzen  
Ez naiz imbusterian ni hola mintzaten  
Frogatu baino aiseago dira kondatzen  
Arima defuntuek naute emparatzen.

### KANTA BERRIAK

1

Zerbeiten obligatuz ditut deklaraten  
Amodioak zer penak berekin dakarzen  
Munduan deusik ez dut huni komparatzen  
Ene bihotz tristiak zer duen sofritzen.

2

Hainitz sofritzen dut nik oi ene maitia  
Changrinetan deramat munduko bizia  
Baldin holakoa bada eternitatea  
Hobeko zen enetzat sekulan ez sortzia.

3

Pleni naiz bihotzetik hainitz urthe  
Gabaz eta egunaz erreberietan  
Erremediorik ez eritasun huntan  
Mundutik partitzen naiz pena changrinetan.

4

Guaiten naizenian ere maitia mundutik  
Etzare atherako ene bihotzetik  
Hilen naizela laster nik ez dut dudarik  
Bihotza galtzen hai sait zure changrinetik.

5

Hainitz da lanyerosa bihotzeko mina  
Eta partikulazki amodioak egina  
Gorputza ja galdua dut, lanyerian arima  
Urrikal zaite nitaz zu Ama Birjina.

6

Kantu hauk eman ditut ene buruari  
Zeren bihotzian baitut hainitz sofrikari  
Adios sekulakotz ene maitiari  
Gorphutza lurrerat eta arima Jainkoari.

### GATUA

1

Harotz abil bat plazan bada bardoztarra  
Ihizin ibiltzeko zakur bat beharra  
Nahiz ez den oraino adinez zaharra  
Herbi baten hiltzeko da partikularra.

2

Abisatu izan dute jaun ihiztaria  
Harekin jan nahi dutela herbia  
Ase ditu eginik saltsa bat handia  
Hauzotik ebatsirik gathu bat eria.

3

Gathu hura bethia zen gaichua negalez  
Etchian zagoena eria izanez  
Guardia muntatu dute hiru gau-egunez  
Lanak eman deraizkote ezin atchemanetz.

4

Lekhu famatua da chikiten karrika  
Ihiztariak ere han dute fabrika  
Gathua han zabilan noizian behinka  
Azkenian hil dute makhil ukhaldika.

5  
Hil eta ezarri dute dilindan krakotik  
Odola zariola beharri zilhotik  
Eta gero larrutu bortha zerraturik  
Nehon ez da holako gathu burregorik.

6  
Mundu huntan ez da bertze halakorik  
Bere abilezian ez du urguilurik,  
Errespetatua da printzipaletarik  
Frantzes, italiano, españoletarik.

7  
Larrututa gathua hausitu du mehe  
Eria aise baita haragirik gabe  
Amak egin baititu tripa onaren jabe  
Dena jan izan dute batere utzi gabe.

8  
Eltze tchar batian dute urian egosi  
Gero lebrochta giza amak saltsarrazi  
Onkhailua balier oi ekharrazi  
Urín kerratu batzu dituzte ikhusi.

9  
Janari lothu dire oro harrapaka  
Ihiztaria bera azieta betheka  
Beldurrez fini zadin laguner behaka  
Gathu tzar zikina jan dute ikhuska.

10  
Bat espagnola eta bertzea italia  
Hirugarren azietan jan du buruia  
Erranez kurrituia zuela mundia  
Nahon hausitu gabe halako gustuia.

11  
Eri zela bazuen hiru ilhabethe  
Halere jaun horier ez du egi kalte  
Sobera pagaturik erregura dute  
Gauza ona eta merke ezin baititake.

12  
Laguneri saldu du gathua herbitza  
Halere badabila berdin gizo gisa  
Seinale bat beiratu geroko beretzat  
Neguan berotzeko larrua chanotzat.

### JAKHINTZUNEN ARABERA

1  
Jakhintzunen arabera nork berak du berea  
Mundura agertu denian ekharria sortea  
Jainkoak egin bezala nik maite dut nerea  
Nahiz ez den jenden uztez zorionez bethea.

2  
Zaharren erran ederrez nola bainaiz orhoitzen  
Trebes heldu diren aguzak nik zuzen ditut hartzen  
Aitak zarotan ikhasi gizon zuhurra baitzen  
Irriz hartuz zorigaitza zorion bilhakutzen.

3  
Dembora heldu den giza hartuz behar denean  
Aste guzia daramat bihotz onez lanean  
Argatik ilhuneraino bethi leku berean  
Bikhe trukez ezen eta martiluen artean.

4  
Jarri banindu zorteak erregeren tronuan  
Errege zen gerthatuko nere tresnak eskuan  
Galduko ginuen naski biek gure tratuan  
Egoitea hobe dugu beraz garen lekhu.

5  
Nik zoroak ez duenaren bethi du gutizia  
Atsegabeen bizi da nahiz bertzen ongia  
Zuhur giza nik baitakit labur dela bizia  
Irriz nahi dut iragan ahal badut guzia.

6  
Maite duen zikoitzari nik usten dut urhea  
Zilharrik ez dudanean aski baitut kobrea.  
Nahiz izan aberatzek bizimodu hobea  
Ez dute nik bainon lehen akhabatzen urthea.

7  
Nere giza zombeit bada zorionez herrian  
Alegera bizi denik zuhurtasun handian  
Basoak eskuan eta hitz ederak mihian  
Gu bezalako guti da zeruaren aspian.

8  
Mahainean lagunekin naizenean jarria  
Naizela zait iduritzen munduko nagusia  
Gizonik aberatzena sobre bat da handia  
Gu bezala guti da zeruaren aspian.

9  
Jainkoak maitha dezagun erran baitu laguna  
Behar dugu lagunentzat egin ahal duguna  
Adichkidek arpegia dutenean ilhuna  
Nerekin ethorritz dute kausitzen osasuna.

10  
Hiltzen naizen egunean adichkiden bilkura  
Soka-dantzan ethor bedi ni lo nagon lekhura  
Zuhurrenak bota betza azken-hitz hauk burura  
Irriz leher egin eta guan da bertze mundura.

### BEIN BATIAN LOYOLAN

1  
Bein batian Loyolan erromeria zan  
Antchet ikhusi nuben neskatcha bat plazan  
Choria baño ere arinago dantzan  
Ura zen bai pollita hain pollitik etzan

2  
Ezan nion desio senti nuben gisan  
Arekin hizketa bat nai nubela izan  
Erantzun zuan ezite atzezin har nezan  
Adituko zirala zer nai nion ezan.

3  
Arkitu ginanian inor gabe jiran  
Kolorriak gorrituarazi zizkiran.  
Kondatuko dizutet guzia segiran  
Zer ezan nion eta nola erantzun ziran.

4  
Dama pollita zera pollita guztiz bai  
Bainan halere zaude oraino ezkongai,  
Ezkon gaitezen biak, ezan zadazu bai.  
Ni zurekin ezkondu, ni zurekin, ja jai!

**ADIOS ENE MAITIA**

1  
Adios ene maitia, adios sekulako **(bis)**  
Nik ez dut bertze penarik, maitia zuretako  
Zeren eta utzi zaitudan horren libro bestendako.

2  
Adios erraite eta bihotzetik ezin parti **(bis)**  
Nik ez dirot bada, maitia, zurekilan gau bat argi  
Orduyantchet erran ziniro zombat naizen maithagarri.

3  
Zerendako erraiten duzu adios sekulako **(bis)**  
Uste duzuya nik ez dudala amodio zuretako  
Zuk nahi balimbanauzu enukezu bertzendako.

*Monsieur Bernetche propriétaire du chateau de Lehetia  
Sare envoya Mr. Arroki son ami à Tombakoerreka pour lui  
demander un service. Celui-ci ayant des motifs pour être  
mecontent de Mr. Barnetche, lui répondit par le couplet  
suivant:*

**MILAKA GORAINZI**

Errotazu ene partez milaka goraintzi Arroki  
Zure adichkide Mosieur Barnetchi Sarakoari  
Ongui pena dudala segurki  
Hura bera baizik ez dudala utzi  
Satifatu ederki.  
Kausa zer den berak badaki  
Neskatala gaztekin dela ardura bizi  
Libertituz ederki, Oraino ez da libertitu aski  
Ez du kitaturen naski, Haren beguiak hain dituzu argi-izarra  
iduri  
Eta Koloriak churi-gorri ta koloriak ehun hostotako arrosa  
Bera bezain gorri, Neskatala gazten illusigarri  
Karretzatzen ditu ederki, bere demboraz baila bedi.

**PEINES D'AMOUR**

1  
Oi ene bititza doloz betherik  
Badeya mundu huntan ni bezen tristerik  
Lili bat handizki maitatu duenik  
Amodio krudela habil eneganik.

2  
Sukharrik gaichtoena da amogua  
Jaten deraut bihotza edaten odola  
Dembora luzez othe biziko naiz hola  
Othoitzez niagoen hel nadin tombara.

3  
Lili charmegarria eri niagozu  
Senda nindaika ni zuk nahi baduzu  
Ene amodiotik pharte bat hartzazu  
Bertzela oi Krudela hiltzera nihuazu.

4  
Lili hura aldi bat gambera batian  
Tendreki hartu nuyen eskuen artian  
Oi zer oren urusa onetzat orduyan  
Changrinik baizik ez dut geroztik munduyan.

5  
Handitasunak oro hari eman nitzazke  
Haren edertasuna duzu pare gabe.  
Maitia, orhoit zaite klarki nuzu mintzo  
Bihotzian zaituzket azken hatzeraino.

**MAITIA KOMENTUAN**

1  
Zazpi eihera baditut erreka batian  
Zortzigarrena aldiz etche sahetsean  
Hiru uso badoazi karroza batean  
Hetarik erdikua ene bihotzean.

2  
Etchea omen duzu ongi teilaztatu  
Gambera berri bat ere bai pintatu  
Erdiko uso horren perilik ez duzu  
Horren emlegua hauzuan baduzu

3  
Ene aitak eta amak zutenean yakin  
Amodioan ginela biak elgarrekin  
Enganios ninduten plazarat ekharri  
Eta lagun batekin komentuan ezarri.

4  
Zure aita deia hain gizon krudela  
Komentuan baitzerauzka kriminel bat bezala  
Zure eta ene amodioa hostu nahia da  
Bainan ez du eginen, trompaturen da.

5  
Aira banindadi ainhara bezala  
Ardura joan nindaite komentuko leihora  
Eta maitiarekin han pasa dembora  
Bien pena doloz elgar konsola.

6  
Komentuko paretak oi paretara finak  
Ofiziale onek dirade eginak  
Dobleska badituzte leioetan burdinak  
Maitiaren ikhustera ni ezin sar harat.

**KAILLA KANTUZ OIHANETIK**

1  
Kailla kantuz ogipetik uztail — agorriletan  
Maitiaganik etcherakuan aurthen entzun dut bortzetan  
Amodioak ninderabilan haren bortha— leioetan

2  
Amodioak amodioa nahi duenak har diro  
Nik batentzat hartu dut eta sekulan ez dut utziko  
Ez, sekulan ez dut utziko thomban sartu artio

3  
Chochuak umiak chilhopian gaphaparez barnian  
Ama, nik ere nahi ezkondu adinak ditudanian  
Ene lagunak eginik daude juande aspaldia.

4  
Primaderan zoin den eder briolinaren lorea  
Aspaldian ez dut ikhusi maiteñueren begia  
Balimba gaichua orhoit ahal da non eman zaitan fedia.

5  
Orhoitzen nuzu orhoitzen etziautazu ahanzten  
Madalen batek bezembat dizut mundu huntan nik sofritzen  
Jaten dudan ogia ere nigarrez dizut bustitzen.

6  
Gaua ilhun bidia luze ez deia pena handia  
Zure ikhustera jiten nitzaitzu izar charmegarria  
Borthañua idek dautazu tendretziak bethia.

7  
Gaua ilhun izanagatik argi beharrik ez dugu  
Izar charmegarri hura leihoan omen dagozu  
Ni etchian sarthu artio hark argituren dautazu.

8  
Amu arraina ñimiño ñimiño bainan agudo  
Ur zolatikan gaineraino laster ingura liru  
Neskatchak ezetz erranagatik muthilak amora diro.

9  
Basterretik basterrera oi munduaren zabala  
Eztakienak erran lezake ni alegera naizela  
Hortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra.

### AMA BATEN KONSEILUAK

1  
Amat dio alabari ala kanailla charra hi  
Hik behar duna ibili aitoren semerekin,  
Ibiltzekot ibil hadi hihau iduri zombeitekin.

2  
Ama, zaude ichilik ez erran othoi gaizkirik  
Gaztetasuna innozent dela ez dakizuia engoitik  
Zure dembora orhoitu eta othoi ez egin nigarrrik.

3  
Jaun gazte bilo horia ofiziale berria  
Gaztetto danik egin diozu andregaiari gorthia  
Kitazak kita herria galdu gaberik bizia.

4  
Kitaturen dut herria galdu gabe bizia  
Ene amak haziren du ene lehen fruitua  
Eta nik berritz ikhasiren Española bidia.

5  
Mus de Urruti aitzazu etzaitzu behar gaitzitu  
Zuk ene arreba nik zure alaba biek ditugu trompatu  
Mus de Urruti barkhatu zorrak zorra du pagatu.

### ZERTAKO DA GIZONA

1  
Bertzu berri batzuek nik nere moldean  
Donado zaharrari nahi ditut eman  
Nahiz ez ezkontzea daukun konseilatu  
Hal ere naiago dut andereño bat hartu.

2  
Beretzat bizi dena zer da mundu huntan  
Bere bihotzarekin bethi hari gerlan  
Haitz alfer baten pare behar du higatu  
Ez, ez nik naiago dut andereño bat harthu.

3  
Donadoen bizia hainitz da elkhorra  
Lausu izanagatik ez naiz ez elkhorra  
Jende on guti baitut heietan aurkhitu  
Hainitzez naiago dut andereño bat hartu.

4  
Zertako da gizona ala emastea  
Ezkon gabe hiltzen den donado lelea  
Atze bat bere onez behar du gainditu  
Nik hainitzez naiago dut andereño bat hartu.

5  
Donaduen ardura nihaur ikhusia  
Bertzek bezembat maite neskatchen begia  
Adina yuan eta ezinez mudatu  
Nik gasteik naiago dut andereño bat hartu.

6  
Donaduak munduan ez du hainitz agur  
Luzeki bizitzeko othoitz guti segur  
Siguuten esperantzan behar du gelditu.

7  
Donaduak badauka hainitz errateko  
Batean hala eta bertzean hulako  
Nola ez baitut nahi donado gelditu  
Hainitzez naiago du andereño bat hartu.

### MUTHIL ZAHARRA

1  
Bakharrik bizitzeaz unaturik frango  
Chede zerbeit banuen lagun bat hartzeko  
Bainan orai andreak zembat ez du bahar  
Ez ez naiago dut egon muthil zahar.

2  
Herronka guzietan estatua gaindi  
Egunoroz baitugu mila moda berri  
Haimbertze gasturekin nola menaian zar  
Ez ez naiagu dut egon muthil zahar.

3  
Grizetek utzi dute mokanez pollita  
Ustez hobeki doan loredu boneta  
Zer boneta buruan neskatcha bat nik har,  
Ez ez nahiago dut egon muthil zahar.

4  
Sederian sarthuak printzesak iduri  
Fu egiten diote soin telapintari  
Horrela uste dute zombait choro lokhar  
Ni ez bainaiz logale, nago muthil zahar.

5  
Handiek badakite musikan kantatzen  
Bainan badakitea botoin baten lotzen  
Dendari jornaletan zombait urhe-zilhar  
Ez ez nahiago dut egon muthil zahar.

6  
Mirail baten aldean goizetik josiak  
Han dituzte miratzen aurkhintza guziak,  
Egun gauza bat eskas, bertze zerbait bihar  
Nor ez da lotsatuko, gauden muthil zahar.

7  
Zembat senhar munduan gaiski gerthatuak  
Lephoraino sasian direnak sarthuak  
Orai egiten dute berantegi nigar  
Hambat gaichto berentzat egon muthil zahar.

8

Eskontzeko bideak legun eta garbi  
Urrundik begiratu (begiratu) du beluz iduri  
Bainan da hurbiletik dena harri-bizkar  
Nola bainaiz laususko nago muthil zahar.

9

Segur da deithuko nau batek galai hotza  
Behar bada bertzeak harpagon zikoitza  
Laidoen jasaiteko senti baitut indar  
Askoz naiago dut egon muthil zahar.

10

Oi hauche da mendea gizon gaztendako  
Orai andreak dire jaunen larrutzeko  
Ez othe da diozu chuhur zombait bakhar  
Ez nezake zin egin gauden muthil zahar.

11

Hobeago zuretzat othe da zoria  
Zuri nago neskatcha goregi jarria  
Utzatzu sobramiak izanen da senhar  
Non ez egonen zare bortchaz neska zahar.

### ESKUTARIA

1

Anderia gorarik zaude leihoan  
Zure senharra behera dago Frantzian  
Hura handik jin daiteken artian  
Eskutari har nezazu etchian.

2

Nere senharra behera bada Frantzian  
Hauzoak urbil utzi dauzkit etchian  
Hauzoak urbil utzi dauzkit etchian  
Eskutari beharrik ez dut etchian.

3

Izatu nauzu Espanian eta Frantzian  
Bai eta ere Angeletarre guzian  
Andre ederrik ikhusi derait heietan  
Zure parerik etzen neure begietan.

4

Eskutaria ederki zira mintzatu  
Gaurko ostatu neure etchean baduzu  
Gambara berri ohea churi dukezu  
Gero ni ere aldean plaser baduzu.

5

Zure senharra ni bainon gizon hobe  
Zaspi urthez fornitu deraut ogia  
Zortzigarrenian bere aspiko zaldia  
Anderia beira fidelitatia.

6

Oi jaun gazte chapeldun bilo horia  
Altcha zak altcha ezkerreko begia  
Altcha zak alcha ezkerreko begia  
Heian hi haizen neure lehen semia.

7

Iratzeñua bethetzen denian udarez  
Zezen churia erditzen denian chahalez  
Zezen churia erditzen denian chahalez  
Erranen dautzut zuria naiezen bai ala ez.

8

Uraren gainean eginen diat zubia  
Han errainen ogi gazi gorria  
Han jin artian ophil churia  
Ez dute izanen amaren barkhamendua.

### GERLAKO KANTUAK

1

Mila bederatzi ehun urthe eta hamalau garrena  
Berri bat tristea Frantziara ekharri izan duena  
Anaia maiteak bil gaitezen guziak elgarrengana  
Behin bethikotz kasa dezagun gure etsai alemana.

2

Hauche da bada egun tristea argitu izan daukuna  
Guziek ongi badakizue abostuaren lehena  
Eguna ere apalduchea oraino ez zen ilhuna  
Gure ezkilak bere dorretik adiarazi daukuna.

3

Gure ezkila entzun genuen arratzalde aphalean  
Jende guzia hari zelarik bakotcha bere lanean  
Hanitzak ziren kampan eta bertze batzuek barnean  
Momento hartan trichtezia bat sarthu zaiku bihotzian.

4

Ezkondur eta ezkondugaiak aberatz eta pobreak  
Miriku, notari, errientak, aphezak eta fraideak  
Gerla huntara gan behar gare kapable garren guziak  
Obligatuak gare bezala manatzen dauku legeak.

5

Adio beraz gu bagoazi, uzten ditugu herriak  
Aski tristerik gelditzen dire gure emazte maiteak  
Kontzolatze hor duzketzue haur ttiki horie guziak  
Agian denak lagun gaitzala zeruko Jainko maiteak.

6

Gure amatto ikhusi nuen bere gelako chokoan  
Ene haurretarik ttikiena zaukalarikan ondoan  
Jainko jaun onak baizik ez daki harek zer zuen gogoan  
Begiatarik zuen nigarra arrosarioak eskuan.

7

Abisu on bat partikulazki gure haurride gazteri  
Obedituko diozute aitari eta amari,  
Ahalaz jarraikiz elizarat, othoitzetikan ez geldi  
Horiek ere bartze munduan izanen dire ageri.

8

Kuraie handi hazkar batekin lotu ginen bideari  
Frantzezekilan gu Eskualdunak esku emanez elgarri  
Gure othoitzak entzun eraziz zeruko aita onari  
Bitoria eman dezakola frantses herri maiteari.

9

Nahi zaituztet orai aipatu gure herriko artzainak,  
Zuek estituko dauzkitzue familietako penak,  
Ez dire debaldetan izanen egiten tutzuten lanak  
Gure Jainkoak egin zaituste guretzat bere bere ordainak.  
I Albandos.

### DUGUN EDAN ETA

1

Dugun edan eta gaitezen liberti  
Nork emanen derauku tatcharikan guri  
Guk duguna hauche da maichko edan nahi  
Berandu ezkontzeko aski dugu hori  
Maitia Cattalin.



2

In nomine patri eta et fili  
Gora nintzelarikan behera erori  
Lephoko zainetarik hausti tut hamabi  
Sahets hezurretarik hogoi eta bi  
Maitia Cattalin.

3

In dan edatera, maitia Cattalin,  
Egarriak hurran akhabatua nin  
Hi ikhustearekin botoila horrekin  
Bihotza phistu zautan edatiarekin,  
Maitia Cattalin.

### INCHOSPEKO ALABA

1

Goizian goiz jostera juailia  
Nigarretan pasatzen du bidia  
Aprendiza kontzoiatzilia **(bis)**.

2

Zeruan den izarrik ederrena  
Jin balekit argi egitera  
Juan naite maitiaren ikhustera

Ene penen hari erraitera.

3

Mundu huntan penarik gabetarik  
Bizitzeko nik ez dut perilik  
Maithatu dut ukhanen ez dudana  
Horrek beiteit bihotzian pena.

4

Maithatu duzu ukhanen ez duzuna  
Horrek deitzu bihozian pena,  
Maitha ezazu ukhan diokezuna  
Eta juanen da zure bihotz-mina.

5

Mertchikaren loriaren ederra  
Barnian dizu hechurra gogorra  
Gaztia niz bai eta loriosa  
Ez dut galtzen zure esperantza.

6

Zu eta ni biak ginaudenian  
Akort ginen hitz batik barnean  
Eta orai dembora jin danian  
Zu etzaude zure erranian.

7

Adios beraz ene maitia adios  
Adios deizut orai sekulakotz  
Ezkunt zite plazer duzunarekin  
Eta begira ene arrakuntruti.

8

Zer izanen da zure arrakuntria  
Zer ahal da zure egin ahala  
Zerbait kasu nitan gethatzen bada  
Zuyet berri bat zutan izanen da.

### IRINTZINA BAT MENDIAN

1

Gau eder batek ninduen atzeman mendigainetan  
Iduskia aitzinean emeki etzan zitzautan  
Azken abereak etchera zoazin ene oinetan  
Bazter guziak zituztela inharrosten marrumetan.

2

Lehen izarrek zeruan orai zuten dichtiratzen  
Ordokian harrabotsak hasiak ziren estitzen  
Egunaren ondotik gaua beren aldian hedatzen  
Herrian etche zombeit ziren oraidanikan argitzen.

3

Bortu gainean artzai bat atzematen nuen kantuz  
Eskualdunen aire zahar ederrak charamelatuz  
Boz hura orduan bakharrik mendigain hetaz adituz  
Iduri zautan arbasoak harekin zaudela oihuz.

4

Bat batean ilhunbean oihu bat da eraikitzen  
Bere samintasunean ninduelarik harritzen  
Mendi kaskoan harri gothor zaharrak zituen jotzen  
Eta leku basa hetako oihartzuna iratzartzen.

5

Oihu gora garratza zen nola emaztearena  
Azkarra eta bortitza na gizonkiarena  
Artetan gero erranen zen basa ihizi batena  
Ezagun zelarik halere oihu bat jendearena.

6

Luzaz zuen inharrozi mendi hetako bortua  
Iduri zuen haztean norbeit zela mihartua  
Hirri lotsagarri batean zen aldiz akabatua  
Bethi chutik nindagolarik bide chondran choratua.

7

Ibañetan ere lehen irrintzina aditu zen  
Arrolarri berthutea laster ziola lotsatzen  
Deiadarraz debalde ziren mendiak dardarikatzen  
Eskualdunen irrintzina zen deiadarri nauzitzen.

8

Gogoetan nintzalarik osoki zen ilhundua  
Zerua zuten izarrek mila itzez itzatua  
Aldiz bortuan irrintzina zen aspaldi ichildua  
Ordokian lanoek zuten hasia beren gudua.

9

Azken aldikotz nituen behatu bortu ilhunak  
Iduriz orai zerautan ihardesten oihartzunak  
Mendian entzuten direna hain ederki irrintzinak  
Ez dira ezeztatzekoak lurgainean Eskualdunak.

Barbien

### ZASPI USO BADUAZI

1

Zaspi uso baduazi hamalau hegalez  
beren arrazuaiak atchewan baharrez,  
Kampoan hiltzera noha maitia zure minez  
Bortha idek dautazu Jainkoarn amarez.

2

Zenbat ere baitakit ederki mintzatzen  
Ez nauk hik uste bezain errecha trompatzen  
Egiatz mintzatzeko deraiat erraiten  
Jin haizen bide beraz etcherat juan hadien.

3

Ene maite pollita buruan zer duzu  
Gau eta eguna bezain sanyakor zira zu  
Nion promes eamanik zuk balimbaduzu  
Aintzin gibeletara guardia emazu.

4  
Maitia ez derautazuia atzein bat ein nahi  
Gauño zureganat ni ekharrarazi  
Nere pena-doloren erreitera zuri  
Hori bera aski laiteke ni kontzologarri.

5  
Maitia nik banuke aski borondate  
Harembertze pena zuri eman gabe  
Bainan gure etchian senti batzintzate  
Sekulakoak heiekin eginak zintuzke.

6  
Maitia jiten bazira gauherdi heineko  
Zerbeiten egitera naiz entseiatuko  
Ordukotz etchekuak dire lotarako  
Poleietan bederen zaitut tiratuko.

7  
Chilharrek egin derautzu labuzki bizita  
Chenilla urheria lephotik jauzika  
Harrek utzi derautzu present bat pollita  
Kontsolaturen zira hura ikhusita.

### ANDEREÑO BAT IKHUSI NUEN

(Kantu berriak charmegarriak amodioaren  
gainean)

1  
Berri berriak emanak dire bazko biharamunian  
Uso palomba churi eder nere sarien gainian  
Sareak gero usorik gabe altchatu nituenian  
Harritu nintzen lumain gabe nola yuan zen airian.

2  
Andereño bat ikhusi nuben igande goiziño batez  
Ichtant berian agradatu nintzan haren begiez  
Ez dut uste baduela parrerik estitasunez  
Ene bihotza tristerik dago harekin izan beharrez.

3  
Ez da barberik ez mirikurik munduan asko abilik  
Ene gaitzaren sendatzeko erremedioa duenik  
Arrosa batek lili eder bat begietarat emanik  
Niri eskain eta bertzieri eman zer eginen dut bada nik,  
Patzientzia ikhusten baitut ez dela bertze moienik.

4  
Arrosa hura zerbeit bazela ez da duda egiteko  
Botikan ere oihal peza bat ez da orenen gostuko  
Erran nahi dut charmanta zala, perfeta nere gogoko  
Ene bihotzak etzuen aski claritate harendako  
Galdu dut eta mundu hunetan ni ez naiz kontzolatuko.

5  
Amoduia gauza dorphea jende gaztearen dako  
Ezin utzizko estaturaino hartzen duenarendako  
Gaitz horrek berak harturik nago, barberik ez sendatzeko  
Ez nuen uste amodioak ninduela huntarako  
Eritasunik aski izan dut mundu huntarik juaiteko.

6  
Hamasei hamazazpi urthe ez ditut orainon komplitu  
Amodiotan bizi naizela jadanik hiru baditu  
Uso palomba churi eder ene kaltetan maithatu  
Gure Jainkoak baizik ez daki nik zer duketan sofritu.

7  
Hanitz maite baduzula fama hedatu zaitzu  
Egun guziez maite berri bat egiten omen duzu  
Horiek hola balimbadira nor fidaturen zaitzu  
Gambiatu beharko zira ni nahi balimbanauzu.

8  
Bazinukeia beldurik nik zu maithatuz gerostik  
Nahi ere banukeiela ikhusirik zutaz bertzerik  
Ez nuke uste balaitekela mundu huntan gizonik  
Kontent bizi laitekeenik zu behin galduz geroztik.

9  
Mihian tutzun elhe ederrak bihotzian bazintu  
Menturaz zure maithatzerat erresolo nindaizezu  
Bainan gero desplazerik eman gogo baduzu  
Othoizten zaitut ordu berian lurrez esta nezazu.

10  
Ez nabilazu ikhusi nahiz zu lurrez estalia  
Sobera dizut zure aldera nik amodio garbia  
Horiek hola dirare edo khenderautazu bizia  
Hura enetzat deus ez laiteke zu galduz geroz, maitia.

11  
Maite nauzula badiozu, egia erreiten baduzu  
Diozun bezain bihotzetik maite balimbanauzu  
Elizaz feda nazazu eta gero zurea nukezu.

### LESAKAKO ATSOAK

1  
Lesakako atsoak jakiten badute  
Nor den opiziale pagaturen dute  
Botoila chichtuan eta agorienta eske  
Larruaren estaltzeko arroparik gabe.

2  
Astia pasatuta gero igandian  
Erriztarako pronto arako aldian  
Gizon gizgaichua nigarra begian  
Gosea pasatua astea sasia.

3  
Arnu, agorientia chokolotiarekin  
Hein irabaziak juaiten dituk arin  
Ilia lecho eta maiz muthurra zikin  
Grazia oneko hitz bat ez daiteke egin.

4  
Oihal onak dirade autzoko trahian  
Jainkoak eztidala halako emastia  
Orai ezkon zaiteste muthiko gaztiak  
Konduak atherarik arturik andriak.

### GOIZ IDUZKI CHURI

1  
Goiz iduzki churi, oi izar ederra  
Eta ni ezin mentura zuri mintzatzera  
Len handichaguetan usatua zira  
Ez ez ene mentak tipituak dira.

2  
Izar charmegarri bat bart errekontratu  
Haren mintzatzera ni ez nain atrebitu  
Hari su nauelarik gaua zaut argitu  
Oren bat juan dela ez zait iduritu.

3  
Nik ez dut desiratzen ez handietarik  
Ohorezki bizitziaz ni arraz kontent niz  
Jiten niz zureganat bertziak utzirik  
Zeren zure manerez arraz kontent bainiz.

### UNA CANCIONE

1  
Una cancionc nueva ethorri zait niri  
Yo quiero declararle mundo guziari  
Eta particularmente una señorita  
En la plaza de lanze bizi omen baita.

2  
Haz algunos días izan dut ordena  
Para poner dos berzos ahalik lasterrena  
Me dieron plazo aste bat luzena  
Eso, un compromiso cumplitu biar dena.

3  
En la tropa de Goñi anaia sosido  
Ke son dos comprados Marzalinek dio  
Un pañuelo de seda ez al da kario  
A quielquier moso joben ongi deraukio.

4  
El domingo siguiente juan nintzen plazara  
Aber si le pudiera eraman dantzara  
Para desirle algo iñoro albada  
Con el amor que tengo conformatzen bada.

### CIBOURUTIK SARARAT

1  
Cibourutik Sararat izatu naiz juana  
Nere lehenagoko maite batengana  
Han arribatu gabe aitu nuen fama  
Guarda gazte batekin zela hitzmana.

2  
Uso churi pollita fin eta fidela  
Deus makurikan gabe juan zauzkit gibela  
Nik ere erran dezaket nombeit badirela  
Nik ez bainuen pentzatzen zu holakoa zinela.

3  
Maitia, bizi zaite ta lorios  
Bai eta fidel izan hitzemaner geroz  
Ondoko urrikiak ez du balio deus  
Huntan kitatzen zaitut maitia adios.

### SATIFATURIK NAGO

1  
Satifaturik nago dudanian jakhin  
Adichkide berri bat zuk duzula egin  
Zoazi harengana eta har zazu atsegin  
Nitaz ez dezazula berririk galdegin.

2  
Zutaz galdegin gabe luzaz egoiteko  
Sobera zaitut maite hortan kitatzeko  
Ekarriren dauzute erreporta frango  
Etzaitela izan flako heien sinhesteko.

3  
Flakoago nindaite ez banu sihesten  
Jendiak ez baitira gezurrez mintzatzen  
Hala direnak ere oro ez erraiten  
Aspaldi hasi zinen enegana hozten.

4  
Zu zirela medio galdu dut segida  
Menturaz egun batez orhoituren zira  
Orai ene erranez trufatzen baitzira  
Josepetako sorhuan mintzatuko gira.

### AMODIOAREN PENA

1  
Amodioaren pena, oi pena handia  
Orai ezagutzen dut zer den harren pena  
Amoduia ez balitz den bezain krudela  
Etzinduzket erranen maite zaitudala.

2  
Munduan zenbat urhats oi dudan egiten  
Ez ahal dira oro alferrak izanen  
Jendek errana gatik guretako elhe  
Maitia, trufa nindaite zu bazintut nere.

3  
Zeruan zembat izar, maitia ahal da  
Zure parerik ene begietan ez da  
Neke da partitzea, maitia enetzat  
Adios erraiten daitzut dembora batentzat.

4  
Nik erranagatikan, maitia adio  
ez nezazula izan zuk othoi hastio  
Bainan bai bihotzetik izan amodio  
Etzaitut kitaturen thomban sar artio.

5  
Nik badut maiteño bat oi hura nolako  
Ez da ttiki ez handi bai bien arteko  
Bergia du nabarra oro amodio  
Bihotzian sarthu zait ez baitzaut jalgiko.

6  
Ni balimbanitz premu zombeit etchetako  
Edo etcheke seme mila luisetako  
Zure aitek baluke ontasuna frango  
Ene maite pollita zure ta enetako.

7  
Lanchurda churi duzu arbola gainian  
Ene maite pollita bakharrik ohian  
Desiretan nagozu izaitia aldean  
Oi hura balimbanu begien artian.

8  
Primaderian dire arbolak loratzen  
Eta bazter guziak belharrez freskatzen  
Ene bihotza dago ardura nigarrez  
Zu ez bazaituzket ni hilen naiz changrinez.

### DEMBORA EDERRA DENIAN

1  
Dembora ederra denian goizetan ihintza  
Neure berant jitiak ein derautzu hutza  
Zu alegera zaite triste malurusa  
Berritz ere jinen naiz etzaitela lotza.

2

Nere gazte lagunak zueri naiz mintzo  
Jaun gazte chapelduner ez begiratzeko  
Jaun gazte chapelduner begiratzen denik  
Gutiak izaiten dire trompatzen ez denik.

3

Nere gazte lagunak plazan pasaietan  
Eta ni malurusa bakharik gamberan  
Bakharik gelan eta bihotza tristerik  
Gizon gaia tabernan ederki aserik.

### AIRE ZAHAR HUNTAN

1

Aire zahar huntan bi pertzu emanik  
Alegrantiarekin kantatu naitut nik  
Bihotza libratu penara orotarik  
Desir nuen maitia baitut enetu nik.

2

Enukuen sinhetzi etzuen iduri  
Eneturen nuela maitia segurki  
Mintzatzen nitzao ene ahalaz ederki  
Ene erranagatik hura ezin gomberti.

3

Uhaina arhantzari arrain onik deno  
Gizon gaztiak tendre amoros direino  
Mitzatzen badakite ezin geiago  
Plazerak hartu eta enetzat adio.

4

Pikhanki mintzo zira gizonez maitia  
Ezagut bazineza duzun estatua  
Ez balimbanu maite fidelitatia  
Elitzaiket komeni hola mintzatzia.

5

Zazpi urthe baditu ene kharuia  
Zutan eman nuela ene amodua  
Gerostik nabilazu tristerik gogua  
Beldurrez etzaitzadan zu gaichua.

6

Zazpi urthe baitzaikit onditik ibili  
Ni trompatu nahiz malezian bethi  
Orai egina gatik aise nitaz irri  
Kasu egizu Jainkoak zu etzaitzan puni.

7

Zaldi churi bat badut zure zerbitzuko  
Zuk nahi duzunian biak juaiteko  
Etchekuer errozute dolorez adio  
Itzuliren zirela menturaz oraino.

### EZKONTZEKO PROMESA

1

Orai zombeit dembora pentzatu gaberik  
Ikusi izan nuen lili bat charmantik  
Ene begiak ziren admiraturik  
Ene bihotza ere anhitz trublaturik.

2

Lili pollitik eta sasoin guzietan  
Errekontratu dizut bai orai artetan  
Hek ikhustearikin ez nuen erranen sekulan  
Plazer bat hain ezirik nola zurekulan.

3

Primadera huntako gau ederño batez  
Ilhargia zelarik hedoirik baterez  
Deliberatu nuen juaitia oinez  
Trichtezia khentzeko harekin egonez.

4

Bidia nuen segur aiserik pasatu  
Amoduiak hegalak berekin baititu  
Zorionak han ninduen bai idurikatu  
Ene lili maitia leihuan kausitu.

5

Imposible litzaiket hemen erraitia  
Enetako zembat zen oi miragarria  
Bere behatze ezta zerura itzulia  
Zelarik arratzeko othoitzian jarria.

6

Ez ninduen ikhusten gorderik bainintzan  
Hurbildu nintzaion mintzatziarekulan  
Ez zaitela izi ni ikhustearrekulan  
Hunat jin izan bainaiz dezir onekulan.

7

Oh! zu edertasunez zirena bethia  
Primaderako lili ororen printzia  
Zure othoitz khartzua hola trublazia  
Barkha diezaidazu ene autzartzia.

8

Eneganat zituen begiak itzuli  
Erraiten saudalarik boz ezti batekin  
Ez nazu ez trublazten orai ni segurki  
Zu zintudan goguan othoitzten artetik.

9

Ene bihotzak ez du erranen dut klarki  
Zu ikhusiz gerostik ez du trankilitaterik  
Zure orhoitzapena nau segitzen bethi  
Gauza hori nerautzun zuri erran nahi.

10

Jainkoak nahi zizin duda gaberikan  
Su gar bera zor zadin gure bihotzetan  
Nik ere berehala maitatu zintudan  
Amodio fidelaz ezin dudarikan.

11

Hura entzutiarekin niri hola mintzo  
Aingeru baten boza zautan enetako  
Eskuak ginituen eman partitzeko  
Promes fidelekulan elgar izaiteko.

### IZAR CHARMEGARRIA

1

Ala baita dolu egingarri amoduietan dena  
Bethi pena daramatza gaua eta eguna  
Ez deia bada pena ene bihotzian dena  
Nehork ez baitiro Kompreni ene bihotzian dena  
Maite bat ezi gombertituz nik sofritzen dudana.

2

Charmegarria zu ere sanyakorra zirade  
Ene pena eta dolorez ongi trufatzen zirade  
Norbeitek darautzute beharriak ongi bethe  
Eta zu dudarikan gabe hei ororen sihesle  
Gaizki mintzatu nahi direnak nork gibela detzakke.

3

Izar charmegarria zu bazine enia  
Penak oro ahantzirik jin nidaite kontzolatzeraz  
Zure begi ezta bihotzian dut sartuia  
Eta amodiozko sokez ongi estekatuia  
Ez duzuia bada izan nahi nitaz pietatia.

4

Gizon gazte floria erraiten daitzut egia  
Ez dudala hartu nahi pietatezko bizia  
Ez eta 're eman nahi elizarako fedia  
Zeren zuk eman baitiozu bertze norbeiti zuria  
Imposible da bia gabe pare baten egitia.

### ANDERIA BARKHATU

1

Anderia barkhatu ene ausartzia  
Zeren gainian zira ofensatuia  
Ni amoduetan niz zu gambiatuia  
Zertan hutz egin dautzut nik zuri maitia  
Orai hautan zira egizu gustuia  
Esposa bertzia,  
Etzinautan debalde eman eskuia.

2

Eskuia eman nautzun biak ezkontzeko  
Zer gerthatu da gure gambiatzeko  
Ala atcheman duzu zembeit ararteko  
Deklaratu direnak gaiski enetako  
Amodio fina neke da uzteko  
Hitzaren hausteko  
Hautatu baitzin udan esposatzeko.

3

Espos hautatu maite abandonatua  
Zurekilako nintzen disiratua  
Libro denarendako zer urustatia  
Deusetan ez baitzira dama kolpatuia  
Nahiz adinian ziren pasatua  
Barkha erraitia  
Orai kontzola zite ene maitia.

4

Kontzologarri baita amodio fina  
Sekulan ez ditake aski estima  
Zu agertu baitzinen enetzat presuna  
Ene borondatia galdu dautazuna  
Enetako pena  
Guzien jasaiteko badut ordena.

5

Ordenatu izan naute fede onekuek  
Grazian pasa dembora bi maitiek  
Ezkontzen bazirezte elgarrekin zuiek  
Jaunaren legeari fidel egon biek  
Erraiten deitena ministro haundiek  
Bai eta fraidiek  
Argia non duten fede ukhatuek.

6

Federik ez nerazun sekulan galduko  
Fidel izan bazine zu enetako  
Zuk nahi duzu bizi faltzuen legeko  
Malezia munduan bethi zure peko  
Etzitela izan gauza hortan flako  
Ez da sekulako  
Ni ez othe naiz erremediatuko.

7

Erremediatzia bertze zembaitekin  
Ene bihotzak ez du hori atsegin  
Amodio fidela eman nazu behin  
Kontzolatzeke orai ez dakit zer egin  
Ene entradara berak behar du jin  
Bai eta izan fin  
Orduan ezkonduko nuzu zurekin.

8

Ezkon zite maitia plazer duzunian  
Gaztetasuna gozaturik munduian  
Ni enganatu nuzu jua den aspaldian  
Polliki mintzo zinen bainan malezian  
Kontrinatu banu dembora luzian  
Min dut bihotzian  
Etzaitudalakotz andre sahetzian.

9

Saihetzian andria ezariko dut nik  
Zu bainon gazte eta brillantchagorik  
Zuri iduri zaitzu ez duzula parerik  
Amodioz buketa egin dut berririk  
Zombeiten ahalgez egon naiz gorderik  
Ez nahiz hirririk  
Zeren atchiki nautzun enganaturik.

10

Enganion ez nazu deusetan kolpatu  
Ez duzu adituren gazte delikatu  
Lehembiziko flora aspaldi pasatu  
Orai behar zinueke ongi buketatu  
Heinaren irauten behauzu penatu  
Gophutza jenatu  
Gaizki mintzatu bainaitz othoi barkhatu.

11

Barkhamendu ondolik zure salutatzen  
Amodio huntarik ez da mintzatzen  
Sekulako fortuna gagoz desiratzen  
Espos maite batekin hala izan ziten  
Azten niz kantatzen dolorez kondatzen  
Hari naiz higatzen  
Pentzamentu onik ez baitut egiten.

12

Ene pentzamentua amoduia zen  
Bihotzaren erditik jalgia baitzen  
Hamar mila lekua zukanik urrun zen  
Etzitut ikhusiko lehenaz hautatzen  
Hartzen baduzu ere fidel ixan ziten  
Gizonen tratatzen  
Hola berant dagonak ez du egiten.

### IGANDE ARRATZ BATEZ

1

Igande arratz batez izar bat ikhusi dut  
Jalkitzen zen zerutik ilhunduz gerostik  
Distiratzen baitzuen ororez gainetik  
Haren claritatiak etzkeien parerik  
Mudatu ez balitz (*bis*).

2

Munduan naizela nik badu zombeit urthe  
Holako izarrikan ez dut ikus uste  
Iduzkiaren azpian kausi ez laiteke  
Sartu zait atheratzia neke  
Hainitz nuen maite (*bis*).

3  
 Amodiotan denak bethi baditu penak  
 Ez dezake erran frogatu ez duenak  
 Bethi tristezian gau eta egunak  
 Condatzen tuelarik joiten diren orenak  
     Zembat diren juanak (*bis*).

4  
 Zure ikhustera ethortzen nintzenian  
 Zu bethi tristezian bertzerik bihotzian  
 Eta ni zembat aldiz nigarra begian  
 Gambiatu zinela bethi beldurrian  
     Orhoitzen nintzenian (*bis*).

5  
 Harren bertze aldiz erraiten zaudalarik  
 Zuk bazinukezela nitaz bertze maiteirik  
 Orai hemen nago ni hoiek sinetzirik  
 Jendien erranak egiak gerthaturik  
     Eta sinetzirik (*bis*).

6  
 Osasuna on bat desiratzen dauzut nik  
 Bihotzaren erditik, maitia, gogotik  
 Gogua satisfa zazu dembora delarik  
 Ez baita probetchurik zahartuz geroztik  
     Ez izan dudarik (*bis*).

7  
 Oi ihiztaria bahabila ihizian  
 Chakurrak aintzinean mendien hegalean  
 Guardia emak trompa hire bidean  
 Bertzeak ere baditut han  
     Zerbaiten ondoan (*bis*).

8  
 Zortzi bertzu beri copian tut ezarri  
 Eta adios erran ene maitiari  
 Mila urthe munduan bizi banindadi  
 Sekulan elitzaio ahantziko pena hori  
     Ene bihotzari (*bis*).

### FRANTSESAK MADRILEN

1  
 Mila zortzi ehun eta zortzigarrenian  
 Soldu sarthu ginen gu inorantzian  
 Zerbitzatu behar ginela printziaren guardian  
 Egin ere badugu behartu denian.

2  
 Arribatu ginenian Madrilgo hirian  
 Begitarte egilia frango izatu ginian  
 Nafartarrak ginela erraitenzitaian  
 Heien alde izanen ginela behartzenzirenian.

3  
 Maiatzeko hilaren bigarrenian  
 Errebolta eman daukute Madrilgo hirian  
 Hiritchan kasatu nahi gintzteian  
 Ederki trompaturik baitaude ordian.

4  
 Lauetan hogoi ginen kasernatik partitu  
 Bi plazetara gintuzten gero partitu  
 Lehembiziko sua ginuenian abiatu  
 Ikuz ahalak oro beikintuen garbitu.

5  
 Chupa gorriekin ginenia athera plazara  
 Burla egiten zaizkigun hasi berehala  
 Madrilen uste zuten zezenak ginela  
 Toleiatzekotzat mokanesekila.

6  
 Mokanesak iharrosiz iphurdia jo  
 Oihu egiten ziteia tira tira karako  
 Tiratu ere ginituen dozena bi tiro  
 On zirenak joan ziren erran gabe adio.

7  
 Madrilgo andrekin in dute iarabazi ona  
 Eltze eta pitcharrak bota harrikara  
 Lur-bachera egilentzat hori ez da mlhur bat  
 Lehengo bien prezuian orai saltzen dute bat.

8  
 Ikhusi zutenian gure borondatia  
 Gurutze banarekin jin zauzkigun bia  
 Bertzek kapotapetik harri ukhaldia  
 Pena halakoa bizirik uztia.

9  
 Madrilgo andrekin zuten kombertzazionea  
 Desiratzen baitzuten gizon izaitia  
 Frantses porroska hoiek zer debru dira  
 Dozena baten aski naun bertze batekila.

### FRANTZEZAK MADRILERA

1  
 Laphurdi, Basa-nabarre, Zuberua gurekin  
 Gerlarat juan gira guziak elgarrekin,  
 Madrilgo plazaraino guziak lerro-lerro  
 Cantatzen dugularikan bego frantsesa libro.

2  
 Armadetan bestak handi etsaiak dantzan hari  
 Frantziako nazionia ororen soñolari  
 Bombak joiten atabala artilleriak chirola  
 Españolak eginen du heiekin karmañola.

3  
 Frantsesak eta españolak egun eta bizian  
 Elgarrekin kompontzia izanen dik aski lan  
 Giza hortan zer bizimodu beharko dik zeruian  
 Frantsesak ez dik nahiko español hilen artian.

4  
 Donibanen aphez batek kantu hau eman ditu  
 Eskual-herrieta kantatzen behar ditugu aditu  
 Frantziako erregeren dire laudoriotan  
 Eskualdunen ohoretan españolaren laidotan.

### USO CHURIA ERRAZU

1  
 Uso churia errazu norat juaitein ziren zu  
 Espainiarat juaiteko bortuan elhurra baduzu  
 Gaurko zure ostatu gure etchian baduzu (*bis*).

2  
 Ez nauk itzitzen elhurrak are gutiagi ilhunak  
 Maitiagatik pasa nezazke gauak eta egunak  
 Gauak eta egunak desertu eta oihanak (*bis*).

- 3  
Usua eder airian are ederrago mahainean  
Maitia zure parerik ez da Espainia guzian  
Ez eta ere Frantzian iduskiaren aspian (*bis*).
- 4  
Izar batek zerutik claritatez betherik  
Gauaz ere distirutzen du bertze ororen gainetik  
Duda nuke baduenetz mundu hunetan parerik.
- 5  
Izar haren begia hain da charmegarria  
Coloreak churi-gorri perfekzioez bethia  
Eria ere sendaliro haren begitartiak.
- 6  
Juan ninduzun pelerin bi serora gazterekin  
Comentu batian sarthu ninduzun heiekilan biekin  
Arrosari guti erranik jalgi ninduzun batekin.
- 7  
Lau eta zazpi hameka, oi ene maite pollita  
Zurekin entzun nahi nukezu esposarioko mesa  
Estolarekin apheza distingueki eliza.

### AMODIO ETA EGINBIDE

- 1  
Cantorenuak berririk apherilian emanik  
Tristeziak hariturik nago bihotzaren erditik  
Uso churi bat galdurik begia nago ilhunik.
- 2  
Uso churi ederra hatza dohaket behera  
Jiten nitzautzu nere penen zuri deklaratzera  
Zu zira ene barbera har nezazu sedatzera.
- 3  
Sinhetz nazazu fedian erraiten daizudanian  
Zu baizikan bertze maiterik nik ez dudala munduan  
Zer probetchu da ordian ez dute nahi etchian.
- 4  
Etchekuen kontra juaitia ez nuke nahi, maitia  
Etzinukeia nahi oraino hobeki informatzia  
Urrundanik jakitia zer duten borondatia.
- 5  
Zuk bezembat pena segurik sinhetz nezazu badut nik  
Guk elgar maite izanagatik zer probetchu du hargatik  
Badugu bertze nauzirik guk obeditu beharrik.
- 6  
Oihanian eder arbola ni ez naiteke kontsola  
Bihotzetikan ekhartzan dizut nigarrarekin odola  
Ni ez naiteke kontzola, hilik ere ez dut achola.
- 7  
Jaunaren graziarekin orai badugu zer egin  
Bihotzetik erraiten dautzut pena handi batekin  
Esposatzeko zurekin samur naiz aita-amekin.
- 8  
Amodio berria hainitz da trompagarri  
Zuregatik utzi izan dut nik lehengo maitia  
Orai orotaz gabia disirutzen dut hiltzia.

- 9  
Ene maitia zu ere etzaitela hasarre  
Egia da eman nauzula nere buruyaz bai fede  
Phena dudala dolore ezimbertz egin halere.
- 10  
Izanagatik mundia zutaz embrazatuia  
Ez da komeni eri dakizun hartaz ispirituia  
Indazu sentimenduia balimbazira feruua.
- 11  
Uso begi ederra mintzatzaile ederra  
Gu elgarreki akort bagira nik ez dut bertzez achola  
Indazu zure fedia munduan pare gabia.
- 12  
Behar gira beiratu zoin gure bider segitu  
Zure eta ene izaitia Jainkoak oro akabatu  
Adioz beraz barkhatu, beharko zaitut kitatu.

### ANDREGAI GAZTIA

- 1  
Anderegai gaztia othoi barkhatu  
Enetako nola othe zita mintzatu  
Egundaino uruski ez zaitut bilhatu  
Zeren gainian zira zu hola mintzatu  
Biluak ure batzu beharrik badituz  
Zu ez nahi hartu  
Zu ez bezalako bat nahi dut enetu.
- 2  
Abertitzen zaitut andere gaztia  
Izariz har dezagun banitatia  
Fortunaz izan banu nik borondatia  
Ez Omen zinitazke nitaz hautatuia  
Aisa da emaitia trunkilitatia  
Urguiluz bethia  
Orai zertako da nik goguan hartzia.
- 3  
Ororen burukua alegera zaite  
Zu afrontatu gabe ni bizi naite  
Hola mintza zirela aditzen badute  
Zure mina dudala aise erranen dute  
Erraclama zaite ahal bezain fite  
Nork nahi zaituzte  
Zu bezalako filusak nik ez ditut maite.
- 4  
Zu maite zaituena ez da ene baithan  
Ez zaitela sar othoi nahi gabetan  
Iduritu zeraukit sobra amidiotan  
Uste badugu ere etzira peiletan  
Izanaiz miletan bertze zombeitetan  
Nahiz alferetan  
Bainan ez sekulan zure desiretan.
- 5  
Desiretan egon naiz errekontratzeko  
Zuri bi arrazoinen esplikateko  
Zer zinuen suyeta ene aiphatzeko  
Zu iduriekin erreformatzeko  
Sekulan saltzero beldur baratzeko  
Ez da fidatzeko  
Pare gabia zira murmuratzeko.

6  
Murmuratzten dituzu iduri zaizkitzunak  
Horiek dira zure jendetasunak  
Chamartzen bide zaitu zure edertazunak  
Gehien komplimentuak eiten diozkatzunak  
Uruski pasatzen tutzunak  
Emanik fortunak  
Odol onik egin liro zurekin gizonak.

7  
Gizonaren bizia emaztek laguntzia  
Comeni da elgarri kombaratzia  
Bainan batzuek badute mila fantesia  
Ustez beren baitharik dutela grazia  
Ez da abilezia urgulu hartzia  
Oro malezia  
Hiltzeko sorthua da mundu guzia.

### EZKONTZEKO ONDORUIAK

1  
Gazte nintzenian dembora batian  
Maitia, ez nintzen kontzalatzen ezkondu artian

2  
Ezkondu eta gero ilhabethe gabe  
Phorru-salda eiten ginuen oliorik gabe.

3  
Hamalau lagunetako familia batian  
Arthorik ez ginuen, maitia lau ilhabethian.

4  
Zohazi eta errozu oi gure amari  
Bi buru chardi erre ditzala bustana khendurik.

5  
Goiko kalletik eta peko kalleraino  
Dontzelarik ez dago, maitia, geiago bat baño.

6  
Aurtcho bat sabelian bertzea besoan  
Jauna tabernan eta, maitia, arthua hauzuan.

7  
Ezkondu nintzenian hiru soineko nituen  
Handikan urthe gabe, maitia, bi saldu nituen.

8  
Iruñatik hor heldu da Betiri Ahamburin  
Soinua jotzen dautzu, maitia, guziera berdin.

9  
San zorrikutun Ahamburin gure amorio  
Utzi alde bat, ene maitia, eskualdun jendia **(bis)**.

### OI AMODIO

1  
Oi amodio gaztien zoragarria  
Beldur ez banintz zuretako, maitagarria  
Ebatz niro demboraren erdia  
Bai eta behar balitz ere guzia.  
Zurekin pasatzeko neure bizia.

2  
Gizon guztia zutaz naiz estonatzten  
Zeren ez duzu nigana kontinatzen  
Kontina niro esperantzarik banu  
Bainan beldur naiz ez dukedan probetchu  
Nitaz bertzerik duzula zuk maithatu.

3  
Declaratzen naiz aita-amen aintzinian  
Zer pasatzen zure ta ene artian  
Sekretuian nahi nuke zu jakin  
Amodiorik baduzenez enekin  
Urriki ez dakizun demborarekin.

4  
Neure mentak akhabatuak dira  
Dembora batez banuen sobera  
Gora uztian behera maiz erori  
Lehen ederra bazen orai itsusi  
Nihork nihon ez naute nahi ikusi.

### GUILLAUME PRUSIAKO ERREGIA

1  
Guillaume Prusiako erregia hitaz mintzo duk jendia  
Zere trublian ezarri dukan kasik Europa guzia  
kontratu tuk Espainia eta Turkia Angleterra eta Otrichia  
Zer lanetan sartzera ohan eman zuhurki guardia  
Uste gabetan gal ez detzakan roi Guillaume izen handia  
*(Errepika)*.  
Hemen gaituk frantsesak harmetan emanak ororen buruko  
Es urez ez eta leihorrez ez gaituk hik bentzutuko *(bis)*.

2  
Guazen kuraieiz gu Eskualdunak ez dezagun egin ukho  
Beldur garela geldi baginte hori ez laiteke justu  
Gambetta dugunaz geroz aintzineko ez gare beldur behar  
trompatzeko.  
Zuzen gobernaturen dela ez da dudarik egiteko *(Errepika)*  
Guazen guazen gazte lagunak kuraie handi batekin  
Gure odola nolakua den prusianoak behar dik jakin.

### AMODIOTAN DE PRESUNA

Errepika:  
Guazen guazen gazte lagunak zoin gure maiteñuen alderat  
Gure pena eta doloren heieri deklaratzera,  
heieri deklaratzera bai eta kontzolatzerara.

1  
Amoduian den presunak badu hainitz sofrikari  
Ez naiz ez mintzo jakin gabe bainan frogaturik ongi.  
Gaichua hemen nago trompaturik lili bat soberache  
maitaturik.  
Ez dirot kita bihotzetik ez dut mement baten onik  
Leihor itsasoak pasatu eta bethi maitia goguan nik.

2  
Oi ene maitia, zuk zer diozu urrundani naiz mintzatzen  
Esperantzarekin bizi naiz nauzulakuan komprenitzen  
Zure orhoitzapenak nau higatzen deusek ere ez nau  
kontzolatzen.  
Choilki gauaz ametsetarik aldan zaitut kautzitzen  
Atzarri eta ondoan gero pena doloriak doblatzen.

### CHARLES HAMARGARRENA

1  
Charles hamargarren erregia partitu da Frantziatik  
Sarraski eta masakria frango kapitalian utzirik  
Diote ez duela bertze krimarik cholki ministroei fidaturik  
Frantziaren gobernatzeko etzuen haraterarik  
Bere indarrak polinrati eman dituenaz geroztik *(Errepika)*  
Changrin malhur desordria frango eman daukute Frantzia  
Hogoi hamar mila bitima choilki Parisko hirian *(bs)*.



2

Ichtant batez dirade Frantzian malhurrak erreparatu  
Charles tristerikan kendu eta Phillipek errenplazatu  
Frantzia eri zena dauku sendatu erremediak ere onak  
chertatu.

Bere kolore ederrekin zaitu kapitalian presentatu  
Egiatzko charta bat eskuan egin dauku juramentu (*Errepika*).  
Biba biba Luis Philipe Frantziaren gobernu  
Zuek eta zure ondoruiek Frantzian manamentua (*bis*).

### SOLDADO BATEK TUNIZIAN 1883 garren URTHIAN

1

Frantziatik hunat jinik hemen begirare hainitz  
Dolu egingarriena orotarikan ni bainitz  
Bertze koplarik eman niri ni orai Baionan banintz.

2

Nik maitiari egorri letra batian goraintzi  
Jinen nizela labuzki bizi datien trankilki  
Hura goguan nagola oren guzietan bethi.

3

Aita-amak nigarretan beren semien changrinetan  
Plazerik ez daite izan oraingo dembora hautan  
Gauza guziak dirade Jainkoaren ohoretan.

4

Adios ait'amak, anai-arrebak, bizi zaitzete trankilki  
Gizon gaztiak behar du demboraz nombeit ibili  
Hiltzen denak badaki pena plazeraren berri.

### ENE MAITIA NON ZIRARE

1

Ene maitia non zirare, zato zato lihora  
Urrundanik jina nuzu ni zure ikhustera  
Zato bada lihora sarnadintzat barnera.

2

Ene maitia, hor zirare, bainan alfer debalde  
Nik erran derautzut lehen ere disimularikan gabe  
Nik ez dudala zuretako amidiorik batere.

3

Ez ez dautazu declaratu are gutiago esplikatu  
Zeren ez dautazun declaratu are gutiago esplikatu  
Orai zaitut ezagutu, amodiorik ez duzu.

4

Muthiko gazte buru handia ez duzu hainitz balio  
Ez deia bada nihor nihon ni bainitz ezkongai denik  
Ez duzu kredit handirik, ez badukezu bertzerik.

5

Bai etcheke alaba onik ezkongaiak daudezenik  
Zu bezen etcheke alaba onik badaite zu bazala bertzerik  
Baduket bai nik hetarik zuri ez erranagatik.

### IZAR EDER CHARMEGARRI

1

Izar eder charmegarri bat nuen gidari  
Izar ederra klaro zuri begira nago  
Amoduian ginen uste baino barnago  
Begira dazu so egizu, aitari errozu.

2

Ai ai aita, hau da lana egin dautazuna  
Muthil hori ez da ene gogorako  
Bertze bat beharko da bilhatu enetako  
Hori bego hori bego bertze batendako.

3

Indiani bastandarra ezkondu beharra  
Elizara juaiteko zaldia beharko du  
Oinez juaiten bada maingu eginen du  
Badu dirua, zanguan min du, hori zetako du.

### MAITE ZAITUT

1

Maite zaitut eta maitha nezazu  
Izar charmegarria kotsola nezazu  
Bertzek ereman zaitzaten hainitz beldur nuzu  
Pena deraitzut bainan fortuna egizu.

2

Maite zaitut bainan bihotzetik ez  
Ikusi nahi zaitut, bainan hurbildurik ez  
Amidua badut, bainan zuretako ez  
Ezkondu nahi dut bainan zurekilan ez.

3

Mendirik gorenean eiten du elhurra  
Trompatzen ninduzula banuen beldurra  
Izanen badut ere bethiko malura  
Halere nahi zintuzket ikhusi ardura.

### OIHARZUNDARRAK

1

Bart arratzian gure neskorrek sabelian min, sabelian min  
Afaitako tipula-saldak ez diola onik egin  
Ekharri medikua berraren herrikua  
Gaitz zer daukan jakiña  
Orrelakorik etzan izan izango donzela egon bazina.

2

Inharagerren bozian nahi ditut pertzu berriak paratu  
Gipuskoako eskualherriak albanitzazke lombratu  
Asko ezkongai daude gostukorikan gabe  
Ezin dutela topatu  
Protzimuari erakutzia es da izango bekhatu.

3

Nechkatcha gazte balientiak baldi gustatzen batzaitzu  
Etorri zaite Oihartzunera han topatuko dituzu  
Calle eta baserri colore churi-gorri  
Ederra frango baduzu  
San Estebantan da erromeria ikhusi nahi badituztu.

### ZURE IKHUSTERA JITEN NITZAITZUT

1

Zure ikhustera jiten nitzaitzu, nolache zira maitia  
Bizi luze bat desie derautzut dohain ederrez bethia  
Bai eta ere hiltzen zermanian parabitsuan sartzea.

2

Eskerrik aski adichkidea ongi ehorri zirela  
Mihian dena bihotzian baltz zer amodio fidela  
Orduanchetto eran neazake nik zuria naizela.

3

Churian churi gorrian gorri charmegarria zirade  
Orai berian in banindadi bi erresumaren jabe  
Horiek oro deus ez litazke, chamegarria zu gabe.

4

Charmegarria, ikhus nezazu kampoan gaizki naizela  
Eskuño batez tira nezazu zure gamberan barnera  
Sekeretuian nahi dauzkizut kondatu ene manera.

5

Zuri eskuaren emaiteko kuraiarikan ez ditenik  
Egundaino ez dut fidatu ene gamberan gizonik  
Fidatu diren gaichoetarik berri gaichtoak entzunik.

6

Ene maitia fida zaitazke bihotza laño utzirik  
Preposatzen balimbadaiztut zure goguan ez danik  
Zeruko Jainkoak ez dezadala eman oren baten bizirik  
Ez mement baten pausurik.

### IRUNGO PILOTA PARTIDA

1

Pilota partida bat Irungo hirian  
Probentzoarren eta frantsesen artian  
Jaun aphez Nafartar bat zuten berekilan  
Gidari gobernari kuraierekilan  
Ethorria zen hunat moltsa onarekilan  
Bitoriaren bila kaskoinarekilan.

2

Probentzian jendia estimagarria  
Gazteria guzia da pilotaria  
Orai artian bazuten bethi bitoria  
Azpitik zadaukaten eskualdun herria  
Bainan orai frantses bat guti iduria  
Baztandar jaun batekin dute nagusia.

3

Jaun aphezaz kaskoinaz girare mintzatu  
Orai bertze lagunak nahi tut aipatu  
Aspandarrak diote ederki botatu  
Eta ustaritztarrak guziak charmatu  
Baztane bai Frantzia dire koronatu  
Eta probentziarrak tristerik gelditu.

4

Ez da posible o jaunak kasik sineztia  
Confidentzia nola zuten zuten ezarria  
Diruz kargaturikan mandua ekharria  
Garbitu nahi zuten arraia guzia  
Bainan etcherakuan heien doloria  
Maduek Irunen galdu kargaren erdia.

5

Probentziarrak zuten prekozonia  
Berekin ekharria bertzu emailia  
Beretako kantatzen erraz bitoria  
Urrun zen pentzatzia partida galtzia  
Canturik eman bada ez dute egia  
Erretzen ahal dute oraingo kopia.

6

Probentziarrak ziren ongi preparatu  
Mundua trebeserakuan diruz zen kargatu  
Galtziaz duda gabe etziren orhoitu  
Abilak ziren bainan hek ere trompatu  
Español moneda da Frantzian frankatu  
Manduak etcherakuan kargak ez kolpatu.

7

Irunen egin dauku urrezko uria  
Bainan ez baliatu hainitz probentzia  
Frantziako aldera zuen ichuria  
Aise doratu dute pausuko zubia  
Aintzinetik bandatzia ez da prudentzia  
Jaungoikuak eman diote punitzionia.

8

Urgilutan zirela ez dugu dudarik  
Etzuten ez pentzatzen partida galtzerik  
Uste zuten etzela Frantzian gizonik  
Pilotan heien kontra atherako zenik  
Jakiten bezaten luzaz Laphurtarrek erranik  
Probentzia ez dela munduan bakharrik.

9

Bitorios balira Irunen gerthatu  
Usoño bat behar zen ichtantian partitu  
Frantses kasta guzia zutela garbitu  
Miseria gorrian zirela gelditu  
Bainan usua zaie bidian trompatu  
Donostia utzirik Laphurdin da sarthu.

10

Araio demonio kaskoin trunko hori  
Bizitik bai loretik ederki duk hari!  
Egundaino holakorik ez diagu ikhusi  
Horrekin behar diagu pilotan ikhasi  
Frantses pikaro hoier etzaie itsusi  
Laphurdi probentzian pilotan nagusi.

11

Adios probentziarrak orai bagoatzi  
Dependio sariak ditugu irabazi  
Baldin berritz haitzera gosturik baduzi  
Etzaiztuegu nahi errenkuran utzi  
Mando mula eder hori ongi kargazazi  
Plazer duzuenian gaztiga daukuzi.

### ADIOS IZAR EDERRA

1

Adios izar ederra, adios izarra  
Zu zera aingerua munduan bakharra  
Aingeruekin aingeruekin zaitut komparatzen  
Zombat maite zaitudan ez duzu pentzatzen.

2

Adios izar ederra eta khariua  
Ene begietako lili arrarua  
Bihotzez zurekin bihotzez zurekin gophutzez banao  
Sekulan ez dut galduko zure amoduia.

3

Izan naiz Araguan pichka bat Castillan  
Egiaz eraiteko España guzian  
Ez dut ikhusi ez dut aditu zu bezalakorik  
Nafarua guzian zaude famaturik.

4

Jarraikitzen nitzaion izar eder hari  
Untzian mariñela nola orratzari  
Itsasua gaindi elementengatik ibil nindaite ni  
Amoduia zer den ez daite kompreni.

5  
 Amoduía duzu arrosaren pare  
 Usai ona du eta ondoan dolore  
 Hilén banaiz ere hilén banaiz ere hiru egun gabe  
 Maitia, ni ez nauke zu ikhusi gabe.

### URA ETA ARNOA

1  
 Una lege zaharreko gizon famatua  
 Zuk landatu zinuen lehenik mahastia  
 Aihen balioz hura zerk eman zautzun burura  
 Lurrian finkatzia gizona tristezian  
 Gausitzen den orenian hark dauka kontzolatua.

2  
 Arnoa naizen bezala naute ohoratzen  
 Compainia guzietan choilki naute maithatzen  
 Frantzia, Italian bai eta Espainian  
 Nik oro charmatzen erregeren gorthian  
 Bethi mahain buruyan ni naute ezartzen.

3  
 Hire balen horiak arraz dituk handiak  
 Ehiz bada funtzian hainitz maithagarria  
 Gizona desordrian hik duk ezartzen munduian  
 Mendratzen osagarrian hik egi tatchen garbitzeko  
 Eta heien kasatzeko ni nauk obligatua.

4  
 Gizona dagonian tristeziak harturik  
 Zonbeit pena dolorez bihotza hunkiturik  
 Edan beza nitarik bauza ongi betherik  
 Gupida gaberik haren phena dolorian  
 Changrin pasioniak kasaturen tiat nik.

5  
 Ene charmek ez ditek batere gilbelatzen  
 Arnoan den gizona nitaz ez duk orhoitzen  
 Hire nochalenzia eta balenoriak  
 Izpiritua dik galtzen grazia konzantzia  
 Giza berian berthutia hitzez duk imitatzen.

6  
 Bekaizti haizela zaitat iduritzen  
 Arrazoinikan gabe baihaikit mintzatzen  
 Horrenbertze errateko hik halere ez oraino  
 Hire etsai ikhusten gizonak ala emasteak  
 Apezak ala erregeak nik oro adichkide.

7  
 Ez duk ez hi baizik munduian bertzerik  
 Atchikiko nauenik desohoraturik  
 Ene edertasuna eta garbitasuna  
 Hik daukak ehortzirik hordia hor habila  
 Ihaur idurien biha kasik ezeztaturik.

8  
 Amodioa eta ura zaudeste ichilik  
 Zoin zuen terminoeta mintzatu gaberik  
 Bakhus bere hoinian barrikaren gainian  
 Nik zaukiat charmaturik munduaren ahoan  
 Mahainaren buruan hark naukak ezarririk.

9  
 Egiatzko laudorioak nik ditiat izaiten  
 Mundu guziko fruituak nik ditiat freskatzen  
 Untziak itsasoan betho komertsioan  
 Ditiat erabiltzen eta bathaio Sainduan  
 Mezako sakrifizioan ni bainaitz kausitzen.

10  
 Ni ere kautzitzen nauk meza sainduan  
 Hi baino lehenago sakrifizioan  
 Hortan halere ez duk abantailik batere  
 Eramatem muduian hik bihotza tristatzen  
 Eta nik alegeratzen gizonen artian.

11  
 Hire alegerantzia laster duk pasatzen  
 Familietan deskantsurik hik ez duk emaiten  
 Gizona ostatuan disputaren buruan  
 Maiz duk ezararazten hortarik nihigabiak  
 Ardura heriotziak dituk eginarazten.

12  
 Ez duk ez emaiten ez arrapostarik  
 Ago bada holachet konfonditurik  
 Gizonak hi utzirik eta ni maithaturik  
 Hobeki eginen dik bethi bake onian  
 Osagarri hobian dembora pasatzen dik.

### CHORI -ERRESIÑOLETA

1  
 Chori erresiñoleta eder kantatzen  
 Bazter guziak ditu choratzen  
 Bard'arratzian  
 Sasi batian  
 Eder ziren charmant ziren manera oroz  
 Bai eta elgarrez hainitz agradoz.

2  
 Bat arra zen eta bertzia emia  
 Etzen mirakuilu parekatzea  
 Lehen ere duda gabe  
 Ikusi ez balu  
 Harra hura etzen juanen sasi hartara  
 Emea ez balitz jin bidez erditara.

3  
 Eta emea non zen orduan  
 Sasi handian barna sarthua  
 Lumaturik  
 Aphaindurik  
 Bere phaphua  
 Cukurusta harroturik jarri zenian  
 Errotera sarthu zen bere ohatzian.

### GASTE GIRA GAZTE HOGOIRA URTHETAN

1  
 Gazte gita gazte hogoiara urthetan  
 Ez egon pentzaketan yuaiteko harmetan  
 Juaiteko harmetan guazen oro betan  
 Guazen oro betan Curaie handitan.

2  
 Amak nigar eta aita ere triste  
 Etchean badit uzten hiru seme gazte  
 Laguntza baduke ni ethorri arte.

3  
 Jiten naizenian demborak eginik  
 Bazterrak ikhusirik frantsesa ikhasirik  
 Amacho ichilik ez egin nigarrik.

4  
Bazterretik badut zombeit kotseilari  
.....  
Ez ez ez dut nahi ukhu egin Frantziari.

### YOKOLARIA

1  
Agur etchekoandria gure diruen jabia  
Berritz ere behar dugu arnoarekin ogia  
Baï eta arratzian kartekilan argia.

2  
Cartak hiru ta kartak lau, cartak emana deraut hau  
Hamahiru izan eta ezin galdu hamalau  
Sakelan udan sosekilan afalduren ez naiz gaur.

3  
Utzak yokua burutik partitu gabe mundutik  
Aditzia banian bainan jokuak agarrak makhur tik  
Hik nekez irabaziak ostalerak juanen tik.

4  
Lau arrosa lau begi, bortz arrosa ta bortz begi  
Gizon debaucharen haurrak maiz gose edo egarri  
Kampora jalgi ondoan haize hotza janari.

### CHORATU NAUZU

1  
Choratu nauzu trompatu nauzu  
Ene bihotza eriturik duzu  
Zuk egin afruntua sarthu zait bihotzian  
Heldu baitzat ardura gogora  
Nik orai pena zure malhura  
Demborak emanen du agertzera.

2  
Ene maitia charmegarria  
Dohain ederrez zirade bethia  
Demborak beharko du ene pena kasatu  
Bihotza alegeratu, sendatu  
Hobe bat ustez nauzu kitatu  
Zure malhura hortan egin duzu.

3  
Zuk kitaturik changrinaturik  
Bi urthe egotu naiz pasaturik  
Ene bihotz tendria nihor maite gabarik  
Etzagoken bakharrik tristerik  
Maite berri bat dut hautaturik.

4  
Adios enia lehen maitia  
Desir onez dut bihotza bethia  
Zuk egin afruntua aspaldi barkhatua  
Desir dauzut gaichua zerua  
Munduan ere bizi luzia  
Eginik zure gostuko maitia.

### CANTORE BERRI CHARMANT BATZUEK

1  
Cantore berri charmant batzuek  
Orai hazten naiz kantatzen  
Iñorant denik balimbada  
Guziek jakin dezaten

Izar eder bat badakizue  
Orok badela Luzaiden  
Estitasunez bethia eta  
Guziak ditu charmatzen  
Gaichua hasi da tritatzen.

2  
Jainko jaunaren probidentzia  
Ez deia bada handia  
Ihaustetako plaza hortan  
Holako argi noblia  
Argi horrek merezi luke  
Ederki adoratzia  
Oferendatzat emakozue  
Mirra edo intsentsua  
Ahal duenak urrea.

3  
Barber gazte bat jiten omen da  
Espainiako aldetik  
Artizar horren kontsolatzera  
Erremedioz betherik  
Barber horrek egin othe du  
Oi mirakulu handirik  
Erremeduiak egin tu bainan  
Utzi du penaz betherik  
Eta gaichua tristerik.

4  
Conseiluño banukzue  
Charmanta emateko zuri  
Jaun barber gazte horrenganik  
Ez balimbazira eri  
Nahi baduzu konserbatu  
Zure argi eder hori  
Gezur zombeitño errakozute  
Adoratzaille orori  
Eta ez fida nehor.

5  
Amodiotan den presuna  
Ez bethi alegera  
Plazer bezembat penarekin  
Pasatzen baitu dembora  
Ni ere gaichua hementche nago  
Galdurik nere odola  
Maitia gabe mundu hunetan  
Ni ez naiteke kontzola  
Hilik ere ez dut achola.

6  
Amodiorik ez duenak  
Penak zer diren ez daki  
Gaitz hortan sarthu gabetarik  
Bakotcha begira bedi  
Amodioak ezarri bainan  
Ni bihotzetikan eri  
Sekulan ez zaut ahantziren  
Maitia, zure pena neri (*bis*).

7  
Ahal banintza esplikatuz  
Nik zombat duda sofritzen,  
Charmegarria, zuregatik  
Zer penak tudan pasatzen  
Nik zu hola maite eta  
Zuk ni hola tratatzen  
Amoduiak amoduiak  
Ez dautzia dolu egiten.

**ERDAL.-HERRIAN**

- 1  
Bizkai eta Aragua gero Castilla  
Diferentziarikan ez dute milla  
Leku tchirtchilla  
Nere aloitzeko lasto char billa  
Humil umilla  
Han bizi nahi dena ito dadilla.
- 2  
Bunkale aldetikan Malmazonera  
Hango jende garbien bisitatzera  
Izatu gera  
Eskutik hartu eta aloitzera  
Leku onera  
Gure ahuntzak adarrak dauzkan aldera.
- 3  
Han egongo bazine urthe batian  
Etzinuke ikhusiko zure bizian  
Kilua gerrian  
Nahiz senharra luken larrugorrian  
Negu guzian  
Horra zer andre onak erdal-herrian.
- 4  
Nolako emaztia halako senharra  
Jende delikatua garbi beharra  
Sikintzu tzarra  
Salako silotikan bere beharra  
Tirriti tarra  
Ochala lertu balitz puerko zarra.
- 5  
Hango sukai — bazterrak  
Ikusten bazinu haorgo kamis hautziak  
Bokatatu berriak churi-churiak  
Zorri kafiak  
Behatza bezen lodi harren hariak  
Lastairakiak  
Iduri baitu saku gaizki jotziak.
- 6  
Hango sukai-bazterrak ikhustekoak  
Laratzikan batere ez falta hauskoak  
Alki santuak  
Hiru edo lau harri kintalekoak  
Hango sokuak  
Ezkondue ez gerostik garbitzekoak.
- 7  
Etchian sarthu eta hango grazia  
Araio ta arnegu solas guzia  
A zer bizia  
Burasoek tipian irakutzia  
Filosofia  
Apustu ez dakitela Ave Maria.
- 8  
Nere lagun Manuel berez Nafarra  
Egoitzez ez hangote gorritiarra  
Ez muthil tcharra  
Ederdi bazakien jotzen kitarra  
Ziri ta zarra  
Behartu zaio baitzen besoz laskarra.

- 9  
Lehen ere badaki zer den zorria  
Bere demboran zombeit da ikhusia  
Casta nahia  
Behatzaz akhituta geldi geldia  
Falso zuria  
Melezia asko daukan alimalia.

**APECHA ETA LOREA**

- 1  
Neguaz primadera zenean jabetu  
Sazi baten aldean apecha zen sorthu  
Leku berean baitzen lorea gerthatu  
Gaichuek elgar zuten bihotzez maithatu.
- 2  
Iduzkiak ihintza hizten duenian  
Apecha doha bethi hegalez airian  
Nahi luke lorea segitu bidean  
Girhainak sertako du gelditzen lurrian.
- 3  
Bere besoak ditu inhintzak zerratzen  
Goizean ondikotz iduzkiak urratzen  
Sertako haiz hi bethi nitarik urruntzen  
Higan eta badakik nigarrez nauk urtzen.
- 4  
Zertako nigar egin oi lili maitea  
Iduzkia egunaz dun ene jabea  
Goizetik lorez-lore nik dinat bidia  
Iduzkia sartzean bethi naun hirea.
- 5  
Goiz guziez adio arratzean agur  
Egunak luze ditut, gazuak aldiz labur  
Nere nigarrez othoi ez habila samur  
Zeren hire galtziaz bethi banauk beldur.
- 6  
Iduzkiak goiz batez zenean agertu  
Lorearen besoak situen urratu  
Bi maitek zutenean elgar besarkatu  
Apechak haiseari hegadak hedatu.
- 7  
Aize bihotz gabea setako herritik  
Erreman duk apecha mendien gainetik  
Sertako duk urrundu maitearengatik  
Hegastin gaicho horrek ez sian hobenik.
- 8  
Desertuan apecha lorrearen galdez  
Inguruak zituen bethetzen auhenez  
Lorea sor lekunan apecha beharrez  
Begiak aphalduzik zagoen nigarrez.
- 9  
Haizeak egun batez udaren haztean  
Apecha zuen hartu berekin airean  
Lorearen maiteak herrira heltzean  
Oi zer bozkarioa zuen bihotzean.
- 10  
Apech hegal flakoa geldi adi geldi  
Utzi bozkarioa doluan sar hadi  
Zertako haiz fidatu haize gaichtoari  
Lorearen gainera lurra duk itzuli.

## MUNDUA GERLAN

1

Nere ispirituan azi naiz pentsatzen  
Gizonaren bizia zer giseitan den  
Egia ez da errech chuchan esplikatzan  
Ainitzen justizia baitut ezagutzen:  
Gu penaz igatzen  
Elgarren chautzen  
Bat bertzea hiltzen  
Odola ichurtzen  
Aberatsak urrundik irriz asetzen *[bis]*.

2

Milla bederatzi ehun amalaugarrena  
Abuztuko ilharen lehen eguna  
Europako gerla bat asi izan dena  
Frantzian azkar ginen bazela zuzuna  
Legeak emana  
Denentzat berdian  
Zerbitzuko on dena  
Biltzeko ordena  
Bainan eskapatzen duk diru duena.

3

Bartitu ginen beraz guziak herritik  
Gure familietan penak utzirik  
Haur tiki zonbeitekin andriak bakarrik  
Gizona penatuki or ez duk dudarik  
Orduaz goroztik  
Dabilenak chutik  
Zembeit ikusten dik  
Penaren partetik  
Hilak bere kontuak eginak ditik.

4

Ispiritu duenak errech dik pentsatzen  
Gure diferentzia zoin handia den  
Handiak ari dituk tikien manatzen  
Pobrearen indarrez ganolez altehatzen  
Ohorez handitzen  
Midailez beztitzen  
Diruaren biltzen  
Intresen doblatzen  
Gu orien manutik elgarren hiltzen.

5

Gerla hunatan parte segitzen duenak  
Segur ezagutzentik zer diren penak  
Ainitz orhoitzen dituk aita-amen changrinak  
Bertze zonbeit berriz andre eta haurrenak  
Lagun ainitz duenak  
Berak ere lanak  
Gau eta egunak  
Hirriskuan denak  
Izaintik erraiteko hiltzen ez denak.

6

Zonbeit gizon alferren kaprizarengatik  
Jende miserabliak pekatzen ditik  
Ainitzek ez diagu ardite baten lurrik  
Bertzerenen kontutzen gabiltzak bakarrik  
Aberatzetarik  
Ainitzak segurik  
Urrun dituk sutik  
Diruarengatik  
Pobrea hiltzen aiduk heien manutik.

7

Ainitz amaren seme dolorez aziak  
Emen uzten ditiztek beren biziak  
Ignorantzia batez hunat ethorriak  
Orien plantak dire nigar ingarriak  
Orotan erdiak  
Basaz estaliak  
Odolaz bethiak  
Inozent tristiak  
Zonbeit aferengatik oiek guziak *[bis]*.

8

Nere lagun eta adichkide onak  
Ikusirik mundu huntan diren penak  
Umilia gaitezine Jainkoari denak  
Ofreituz gure baitan diren bihotz minak  
Emen gaituk denak  
Gauza berak onak  
Plazer eta penak  
Pasatzentugunak  
Jainkoak yuyatzentik oiek denak.

Marie Fagoaga